



Kultura arteko eta erlijio arteko
ELKARGUNEAK

Proposamen bat
eta 80 erregu eta testu
bakearen alde

Federico Mayor Zaragozaren hitzaurrea

www.baketik.org

Argitaratzen duena: Baketik (Gandiaga Topagunea - Arantzazu - 20567 O ati)
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak (Gudarien etorbidea, 29 - 20140 Andoain)
2007ko abendua

Baketik-en Instituzio laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Argitalpen honek erakunde honen laguntza jaso du:





Kultura arteko eta erlijio arteko
ELKARGUNEAK

Proposamen bat
eta 80 erregu
eta testu bakearen alde



GIZA
ESKUBIDEEN
ADIERAZPEN
UNIBERTSALA

Duintasuna eta justizia guztiontzat

Aurkibidea

6	Hitzaurrea.
8	Liburuaren aurkezpena.
12	Lehenbiziko partea: Asisetik Arantzazura proposamena.
13	Lehenbiziko partearen sarrera.
14	1. Hasierako planteamendua: hiru hipotesi.
14	2. Proposamenaren oinarria.
	2.1. Hiru galdera.
	2.2. Hiru erantzun.
	2.3. Ondorio bat.
18	3. Proposamenaren adierazpena.
19	4. Proposamenaren aplikazio eta garapena: oinarritzko lau ikaskuntza.
	4.1. Giza izaeraren mugak ikastea.
	4.2. Esker onekoa izatearen zentzua ikastea.
	4.3. Kontzientziari entzuten ikastea.
	4.4. Giza duintasunaren ikaskuntza.
22	Bigarren partea: laurogei erregu erlijioso eta testu unibertsal bakearen alde.
23	Bigarren partearen sarrera.
25	1. Bakearen aldeko erregu erlijiosoak.
26	Budismoa.
28	Hinduismoa.
30	Islama.
32	Jainismoa.
34	Sintoismoa.
36	Sikhismoa.
38	Afrikako erlijio tradizionalak.
42	Erljio amerindiarrak.
44	Zoroastrismoa.
46	Judaismoa.
48	Bahaismoa.
50	Kristautasuna.
52	2. Bakearen aldeko testu unibertsalak.
52	Bakea eskari eta desio bezala.
53	Bakerako arrazoiak.
55	Indarkeriaren absurdoa.
56	Bakea prozesu gisa.
57	...barrutik hasten dena.
58	Bakea eta ekintza.
59	Bakea eta etika.
60	Bakea eta justizia.
61	Bakea eta maitasuna.

Hitzaurrea

«Nire buruarekin topo egiten dudanean ihesi ikusten dut neure burua»
José Bergamin

Zein zaila den gure putzu sakon horretara hurbiltzea!

Hausnarketarako denbora, gure erantzunak lantzeko garaia, galdera esentzialak barne.

Beraz, gu geu izateko garaia, askeak izateko garaia, gureak ez diren oztopo eta erantzietatik askatzeko.

Egoteaz gain izateko garaia.

Neurrigabe sortzeko, irudikatzeko, berritzaile izateko eta egoerei aurre egiteko gai den giza espeziearen handitasun paregabearen jabe izateko garaia.

Izateak sortarazten duen harriduraren ondoan, bizirik egotearen ukazinezko gertakariaren ondoan, pertsona bakoitzaren ahalmen bereizgarria: meditatzea, deskubritzea eta berrikuntzak egitea, ahalmen sortzailea, ustekabeak diren gauzak egitearen ahalmena, gure itxaropena.

Bide berriak bilatzeko eta aurkitzeko ahalmena, berauek asmatzeko ahalmena, datozen be-lunaldientzako amesten dugun beste mundu posiblea pausoz pauso, aiez ale eraikiko duten etorkizuneko haziak etengabe, etsi gabe ereiteko. Hori da gure konpromiso gorena.

Egunero dakusagun guztia behatzea oso zaila dela dio Julián Maríasek. Komunikabideek az-pimarratzen dituzten puntu zehatzak baino haratago ikusten ikasi behar dugu. «Ikusezinak» ikusi behar ditugu, gaur ezinezkoak direnak bihar posible bilakatzeko.

«Begirada berri bat» eraikitzeaz ari gara. Besteei modu berrian begiratzea, begirada garden eta argia. «Andereño, begiratzen lagun iezadazu!» eskatzen zion larritasunez itsasertzera eraman zuen autobusetik jaitsi berria zen neskato uruguaiar batek. Halako handitasuna kontenplatzeko laguntza eskatzen zuen. Begiratzen lagundu, elkar ikusten jakin, helmuga bera dugun itsason-tzi bereko bidaiariak. Baketik-ek proposatzen duen «begirada berria», Arantzazukoa eta Aran-tzazutik eginikoa, bake eta gatazken konponbidearena, indarraren ordezkari hitza erabiliz.

Une bakoitza biziki bizitzea beharrezkoa da. Ekintzarako garaia da, loak ez hartzeko garaia, al-txatzeko garaia.

Beharrezkoa dena eta osagarria dena desberdintzen jakiteko garaia da. Lehentasuna duena-ren jabe izanik, gure eguneroko jokabideen erdigunean bertan balio etikoak ordezkatzeko.

Ondo abisatuak egon behar dugu, alerta, erne. Gehiago sekula ez ikusle indiferenteak, har-tzaile distraituak, aktore eta sustatzaile baizik.

Hori da Jonan Fernandezek «Kultura arteko eta erlijio arteko Elkarguneak. Proposamen bat eta 80 erregu eta testu bakearen alde» liburuan iradokitzen digun oinarrizko desberdintasuna.

Baketik-en liburu hau introspekzioa, eta konbergentzia eta elkarrizketa esparruak aurkitzeko borondatea lehenbizi norberaren esplorazio ausartean, ezinbesteko existentziaren esplorazioan

alegia, oinarrizten dela defendatzen duen testu gutxi horietako bat da. Honek ere liburu honen egile ezohikoa islatzen du. Eta bizitzaren esperientzia dardarati honetatik oinarrizko lau ikaskuntza: giza izaeraren mugak ikastea (eta mugarik gabeko bere handitasuna), esker onekoa izatearen zentzua ikastea (eta exigentziarena), kontzientziari entzuten ikastea (gainontzeko jarrera eta ekintza guztien baldintza) eta giza duintasunaren esanahiaren ikaskuntza (oinarrizko kontzeptua, ulermen, elkar ulertze eta laguntasun ooren ahalmenaren «gune gogorra»).

Bakearen aldeko zenbait erreku erlijioso zoragarrien ondoren «bakea eta maitasunarekin» bukatzen diren testu unibertsal batzuk aurkezten dizkigu. Ezin zezakeen beste modu batera buka, maitasuna baita hitz gakoa, hori baita datozen belaunaldiei irmoki eskaini nahi dizkiegun bideak argitzen dituen argia: «...ezin ditugu/inguratzen gaituzten/hesi garaiak/geroratu, lurrera bota,/lurraren gainean/gelditzen den maitasunari/eusten dioten uhateak»...

Elkarguneak bilatzea, pixkanaka indarra hitzagatik ordezkatzeko solasguneak. «Jada ez dut ezer,/hitz bakarrik.../baina gure zeregina hitz egitea da» gogorarazten digu Miquel Martí i Pol-ek. «Esanezinezkoa esan behar dugu/entzun dadin entzutea nahi ez dena/baldin eta burua tente dugula/bizi nahi badugu/eta gure seme-alabei begiratu»...

Errutinak irabaz dezan ekiditea, egunez egun, gure dibertsitateak eta independentziak espazioa galtzea ekiditea. Giza izaera sortzaile eta askea ziurtasun eta ziurgabetasunen ertz zehatzean. Teotihuacan-en zera idatzi nuen: ...«Ez dakit ezer, banaizela salbu,/ikaratuta/hemen nagoela salbu./Ikusten dudala,/pentsatzen dudala/eta dardar egiten dudala salbu./Ez naiz ezer,/gizakia ernetu zenean/—lurraren,/eta itsasoaren,/eta haizearen/eta hodeiaren kontzientzia—/unibertsoa argiz bete zela,/sortzaileez/ harrituta eta nahastuta,/badakidala salbu»...

Gozatutako eta bizitako agian mirari den bizitzaren misterioaren une oro: ... «Ilunabarrean/eguna jaikitzerakoan bezala/bizi ote nuen/esango dizut. Onartezina/onartu ote nuen/esango dizut; bide berriak/bilatzen eta aurkitzen/jakin ote nuen/eta sarri ibilitakoak/ibiltzeari uzten; ematen eta neure burua ematen/jakin ote nuen;/maitasunerako lasterbideak/deskubritzen jakin ote nuen»...

Baina, dena da posible. Sortzeko ahalmena da gure ondasun gorena. Esperantza da: «Ez ezazu inor sekularen oinetara lotu» idatzi zuen argiro José Ángel Valente-k.

Gure hegoak, zama eta erantsirik gabe, giza duintasunari dagokion hegaldi baterako. Liburu zoragarri honek, lanbro artean balizak jarriz, aineratze egokia burutzen laguntzen digu.

Federico Mayor Zaragoza

Liburuaren aurkezpena

Liburu hau 2006ko urriaren 14an Arantzazun (Oñati) eratu zen Baketik Bake Zentroak bultzatu eta argitaratu du. Zentro honetan bi kontzeptuk bat egiten dute: bakea eta etika. Bere lana uztartze horren emaitza da. Bere xedea hauxe da: alde batetik, etikan sakontzea bakearen eta gatazkak modu eraikitzailean konpontzearen oinarri gisa; eta bestetik, lantze honen ondorioak ahalik eta gehien zabaltzea.

Proiektu hau bultzatu zutenak Arantzazuko Santutegiko frantziskotarrak izan ziren, Arantzazu Baketik Fundazioa eratuz hau sustatzeko. Frantziskotarren erabakiz, Zentro hau laikoa, ez-konfesionala, autonomoa, anitza... izanik laiko zein erlijio desberdinetako sinestunei zabalik egongo da.

Frantziskotarrek Bake Zentroaren ikuskapena Aginte Kontseilu baten esku utzi dute, euskal gizartearen sentikortasun desberdinetara zabalik. Horrez gain, ondorengo pertsonak osatzen duten Aholku Batzorde bat ere badauka: Federico Mayor Zaragoza, Miguel Herrero y Rodríguez de Miñón, José Saramago, Iñaki Gabilondo, Daniel Innerarity, Victoria Camps, Jose Antonio Marina, Matteo Zuppi eta Massimo Reschiglian.

Baketik Arantzazun kokatzen da, Oñatiko herri gipuzkoarraren inguru zoragarrian. Santutegiak eta frantziskotarrek 500dik gora urte daramatzate bertan. Esanahi erlijioso sakonagatik eta inguru hunkigarriagatik aparte, leku hau erreferentzia garrantzitsua izan da euskal gizartearentzat arrazoi askorengatik. Besteak beste, bere bake nahiaren babesleku eta kontsolamendu delako, euskal hizkuntza zaintzeko egin duen ahaleginagatik, mendi igoera ezagunen atari delako, arte eta kultura munduarekin izan duen loturagatik eta olerkari, musikari eta pintore garrantzitsuak hartu dituelako. Kontuan izan behar da, esate baterako, duela 50 urte Saénz de Oiza, Laorga, Oteiza, Chillida, Basterretxea, Eulate, Lucio Muñoz edo Xabier Egaña bezalako artistek parte hartu zutela Basilika berriaren zati eta elementu desberdinen eraikuntzan edo diseinuan.

Hemen kokatzen da Baketik Bake zentroa. Zehazki, Gandiaga Topagunean, eraikin zibil, berri eta modernoan, Basilikatik gertu dagoena eta topagune eta elkarrizketa leku izateko pentsatua. Frantziskotar espiritualtasunaren testuinguruak, bake nahiak, printzipio etikoak, sormen artistiko eta kulturaleko ingurua eta natura hunkigarriaren eragin biluziak bat egin duten leku honetan sortu da liburu honen ideia. Arantzazu euren barrutik haratago eta barrurago bila dabiltzan pertsonen elkargune eta babes leku gisa taxutzen eta proiektatzen ari da etorkizunera begira. Espiritualtasunean, naturan, artean, kulturaren, elkartasunean, bakea bilatzen duten pertsonentzat.

Humus honetan sortzen da intuizio hori eta hor hasten da ernatzen liburu hau. Behin mar txan jarri ondoren bizitza propioa hartzen duen prozesua da, aurreikusi gabeko bide eta norabideetatik aurrera egiten eta hasierako egitasmoari forma berriak eskaintzen doana. Kultura eta erlijio desberdinek egin duten bakearen eta giza duintasunaren goraiipamenaren bidez mundua eta bere konplexutasuna ulertzen lagunduko digun liburua argitaratzea eta zabaltzea da hasierako intuizioa.

Maila lokalean zein planeta mailan «bestearekiko» bizikidetzak jokoan dagoen mundu batean bizi gara. Desberdinarekin elkartze hori ez da aireportuetan, bidaietan edo nazioarteko politikan soilik ematen. Auzoan eta eskolan, lanean, kalean edo familian ere ematen da. Munduan zibilizazioen «txokearen» edo «aliantzaren» arteko borrokan dihardugu. Auzoan beste kultura, nortasun, erlijio eta ohiturak dituzten pertsonekin topo egiten dugu. Orokorrean eta maila lokalean, jokoan dagoena bizikidetzak, identitatearekiko, giza eskubideekiko eta ohiturekiko errespetua dira. Hau lortzeko oztopoa ezjakintasunean, aurreiritzietan eta «besteenganako» distantzian egon ohi da sarri.

Jakintza, hurbilpena, irekitzea eta «besteekiko» errespetua dira oztopo hori gaindi dezaketenak. Desberdintasuna onartzeko eta «besteak» ezagutzeko modu bat izan daiteke erlijio bakoitzak eta kultura bakoitzak, bere identitatearen barren barrenetik, bakea nola amestu, irrikatu, erregutu eta honen alde nola borrokatu duen ezagutzea. Kultura eta erlijio desberdinetako olerki, otoitz eta erreguen bitartez honen guztiaren testigantza idatzia ezagutzea.

Horren guztiaren bidez, desberdintasunak izan arren antza handia dugula ikustea. Bizipen horretatik eta gu bezalakoak ez diren horiekiko enpatia laguntzea. Azken finean, antzekoak bezala ikusten eta sentitzen dugu. Horrela, sen horrekin eta gogoeta horiekin abiarazten da egitasmo hau. Lehen helburua da bakearen aldeko erlijio eta kultur arteko erreguak bilduko dituen liburu bat argitaratzea hizkuntza desberdinetan maila lokalean banaketa zabala izango duena eta nazioartean ere aurkeztu eta ezagutua izan dadin.

Idea batek bestea dakar eta honek guztiak bat egin du Baketik eta Arantzazuko Santutegia ere garatzen ari diren prozesuarekin. Sinestunen, Jainkoan sinesten ez duten eta beste erlijioetako sinestunen arteko elkargunea identifikatzeko erreferentziak aurkitzeko beharraren inguruan dihardugu lanean. Horren guztiaren inguruan gogoeta egiten ari gara, eta etikaren iparrorratzarekin elkargune horretara irits gaitzkeela uste dugu.

Arantzazu bere historiaren une desberdinetan esperantzaren, bakearen edo kultur susperraldiaren erreferente izan da. Orain, XXI. mendeko hasieran, Santutegiak egiten duen galdera da: zein ekarpen berezi egin diezaiokeen Arantzazuk gaur inguruan duen munduari. Galdera honen erantzuna bi kontzeptuen sintesian oinarritzen da: etika eta Asis.

Santutegiaren oinarrien harkaitzaren gainean, Arantzazuko balore guztiak ideia batean laburbil daitezke, etika: giza duintasunaren defentsak dakartzan exijentziei erantzuteko kontzientziaren ahalegina, pertsonaren lehentasuna, giza duintasunaren aldeko apustua guztiaren gainetik eta aurretik, gizakiaren egitasmo nagusia. Zentzu garaien eta sublimazioaren ulermen sakonek, etika espiritualtasun aurre-erlijioso eta aurre-ideologikoa bihurtzen dute eta hortik abiatuta, pertsona eta kultura bakoitzaren aukera, sinesmen, erlijio eta bidea errespetatu eta ahalbidetzen dute.

Arantzazuk Asisekin lotura izateko borondatea dauka, hiri horrekiko eta honek ordezkatzeko duenarekiko lotura edo elkartzeko fisiko eta sinbolikoa edukitzeko. San Frantziskoren sorteria eta frantziskotarren erreferentzia zentroa izateaz gain, 1986az geroztik hiri hau erlijio arteko elkarrizketaren munduko hiriburu gisa ere proiektatu da. Zentzu honetan, erlijio arteko aurrerapen garrantzitsua da. Asisek elkarrizketa zabaltzen du. Hurrengo urratsa elkarrizketa horrek elkargune sendoak aurkitzea da.

Arantzazutik eta Baketik-etik Asisen hasitako erlijio arteko elkarrizketa ureztatu nahiko genuke intuizio honekin: etika espiritualtasun laiko eta erlijio arteko gisa bultzatu, gizarte desberdinetan eta desberdinez osatutako gizarteetan bizitzeko elkargune gisa. Azterketa prozesu honetan lan hipotesi hau daukagu eta garatzerakoan orain konpartitu nahi ditugun zenbait aurrerapen topatu ditugu.

Horrela erlijio eta kultur arteko bakearen aldeko erreguen liburu bat argitaratzeko intuizioak bigarren intuizio honekin bat egiten du. Honek etikaren sakonenean azterketa egitea garrantzitsua dibertsitatean bizikidetzaren erreferentziak bilatzeko. Elkarrekin egitasmo honen ideia birformulatu egiten dute. Liburu hau orain osagarriak diren bi intuizioen bateratzea da. Horregatik bi zatitan banatzen da: lehenak erlijio arteko eta kultur arteko elkargune batera heltzeko pro-

posamen bat dakar, eta bigarrenak erlijio eta kultura desberdinetako bakearen aldeko poema eta erreguen multzoa jasotzen du.

Bien baturak gai berbera bi ikuspegi osagarrietatik heltzea ahalbidetzen digu: lehena, islatzaile eta intelektualagoa, eta bigarrena sentikor eta emozionalagoa. Emaiza «besteengana» buruarekin eta bihotzarekin hurbiltzeko aukera eskaintzen digun sinergia da, enpatia esperientzia baten bidez. Enpatia, historian zehar kultura desberdinetan gizakiaren nahi sakonenak poetikoki nola transkribatu diren ulertzeko. Eta enpatia orainaldian eta etorkizunean nola konpartitu ditza-kegun etikoki ulertzeko. Azken emaitza «kultur arteko eta erlijio arteko elkarguneak» izenburua da-raman liburuki hau da.

Hiru hartzaile nagusi ditu. Lehena, edozein lekutako eta edozein kulturako edozein herri-tar. Gai hauen inguruan kezka duen edozein pertsonarentzat da. Gogoeta eragin eta, bere kasuan, baita ekintza ere, geure buruarekin eta besteekin hobeto bizi gaitezen.

Bestetik, liburu hau hezkuntza munduari zuzenduta dago, bai hezitzaileei eta baita ikasle eta familiei ere. Liburuaren lehen zatiak oinarrizko lau ikaskuntza esperimintatzea iradokitzen du, irakasleek eta familiek bizikidetzeta-gatazkei eta pertsonen heziketari ikuspegi eta etorkizun be-rrietatik heldu diezaieten.

Azkenik, liburu hau eragile instituzional, politiko, akademiko eta sozialei zuzenduta dago. Hauen eskumena eta erantzukizunak zibilizazioen aliantza batera hurbiltzeko erronkarekin harre-man zuzena duelako, maila lokalean zein orokorrean. Zibilizazioen, kulturen eta erlijioen artean oi-narrizko elkargunea aurkitu dezakegunaren esperantza zehatza piztu nahi du; munduan, eta auzoan bertan.

Baketik

ELKARGUNEAK

Lehenbiziko partea:

ASISETIK ARANTZAZURA PROPOSAMENA

LEHENBIZIKO PARTEAREN SARRERA

Sinestunen, Jainkoagan sinesten ez dutenen, erlijio desberdinetan sinesten dutenen eta identitate ideologiko, kultural edo nazional desberdinetako pertsona eta taldeen arteko elkar-gune proposamenak «Asisetik Arantzazura» du izenburu. Proposamena modu laburrean aurkezten da. Beste liburu batek modu zehatzagoan deskribatzen du, zabal eta xehe. Bere autorearen hausnarketa pertsonalaren fruitua da. Ausardia dosi batekin aurkezten da, baina umiltasunez eta lasai.

Ausarta da desberdintasunean elkargunera iristeko asmoa. Baina ausardia hori mugaren kontzientziarekin orekatzen da. Badakigu ez dugula osotasunean lortuko ezinezkoa baita, giza izaera ez da perfektua, amaigabea da eta beti bidean dago. Asmoa ausarta da, xedea umila, jarrera lasaia. Ez dugu ezer aurkitzerik espero, gutxienez hobetu eta zuzendu egin beharko da, eta kasurik onenean, gizartearen ulermen hobeago baten idealera hurbilduko gaituzten beste ideiarik sortu dezakeen idea ez perfektu eta mugatu bat konpartitzea nahi dugu soilik.

Proposamen honen autorearen bizi-ibilbidea Jainkoarengan sinesten dutenek eta ez dutenek bat egiten duten mugan igaro da, batzuetan alde batean, batzuetan bestean. Bi aldeetatik ulertu eta konpartitu daitekeen lengoaia eta kodigoak aurkitzea izan da bere erronka pertsonaletako bat. Proposamen honek asmo horrekin zerikusi handia du. Adierazten den proposamenak ez du zehaztasun akademikorik edo filosofikorik, bizipenean, behaketan eta bizi esperientzia pertsonalaren ikasketan oinarritzen den iradokizun bat da. Estiloa, beraz, iradokizunarena da, ez sententziarena.

1. Hasierako planteamendua: hiru hipotesi

Asisko topaketak abiapuntu hartuta, erlijioen Parlamentutik igaroz eta Zibilizazioen Artekoko Aliantza kontzeptuaren formulaziora iritsi arte erlijioarteko eta kulturarteko elkarrizketak pauso garrantzitsuak eman ditu. Hala eta guztiz ere, planetan presente dauden zibilizazioen, erlijioen, kulturen eta ideologiaren arteko ulermen minimo bat erraztuko duen kode etiko unibertsal bat aurkitzeko erronkak ez ditu oraindik lortu nahi izandako fruituak eman. Ez gara oinarritzko elkargune bat mugatzeko gai izan. Hau kontuan izanik eta elkargune horretara hurbilketa bultzatzeko helburuarekin «Asisetik Arantzazura» proposamena egiten dut, hiru hipotesi hauetatik abiatuz:

•Lehen hipotesia: abiapuntu berria

Agian, guztion artean konpartitzeko eremu hori aurkitzeko, ez da egokiena etika arauemaile batetik abiatzea. Hori da lehen hipotesia. Baliteke oraindik horretarako prest ez egotea eta korapilo gutxiago duen abiapuntu zabalagoa behar izatea. Edo baliteke ere hau inoiz ez lortzea, agian ezinezkoa baita gizadiaren aniztasunarentzat eta bere izaera mugatuarentzat etika arauemailerik konpartitzera iristea.

•Bigarren hipotesia: ikaskuntzak elkarbanatzea

Hala ere, honek ez du esan nahi pertsona desberdinez eta gizarte desberdinez osatutako mundu plural batean elkarbizitza bakezalea eratzeko elkargune baliagarriak aurkitu ezin daitekeenik. Agian, kode arauemaile bat elkarbanatu beharrean, oraingoz eta lehen urrats modura, geurekin eta besteekin hobeto bizitzeko oinarritzko ikaskuntza multzo bat konpartitu behar genuke. Hori dio bigarren hipotesiak. Zibilizazio, erlijio eta kultura bakoitzak mundua ulertzeko duen moduaren arabera bultzatu eta garatzen duen pedagogia multzo bat bultzatzea eta garatzea, alegia.

•Hirugarren hipotesia: oinarritzko lau ikaskuntza

Konpartitutako pedagogia horiek oinarritzko lau ikaskuntzatan laburbildu daitezkeela dio hirugarren hipotesiak: gizakiaren izaera mugatuaren ikaskuntza, esker onaren zentzuaren ikaskuntza, kontzientziaren entzutearen ikaskuntza eta giza duintasunaren esanahiaren ikaskuntza. Hauek planetako edozein tokitan gizakiaren onenarenganako konfiantza izatera irekitako oinarri sendoz eta garapenerako aukerez betetako ikaskuntzak dira.

2. Proposamenaren oinarria

Arestiko hiru hipotesiek aurrerago azalduko den proposamenaren lehen ildoak eskaintzen dituzte. Halere, bertaraino eramango gaituen hausnarketa ibilbide bat egin beharra daukagu. Ibilbide hori hiru galderaz, hiru erantzunez eta ondorio batez osatzen da. Honek guztiak oinarritzen du gure proposamena.

2.1. Hiru galdera

Garai hauetako nora eza existentzialak eta pertsona desberdinekin eta gizarte desberdinekin bizitzeko zailtasunek oinarritzko hiru galdera baztertzearekin zerikusirik badutela uste dut.

•**Lehen galdera:** pertsona bere baitan eta kontrolatzen duenaren baitan ixteko ala gainditzeko duen horretara irekitzeko dago munduan?

Itxita ala irekita bizi behar dugu? Geure baitan itxita ala besteari, besteei, «beste horri» ire-

kita? Geure existentziaren orientazioarekin eta gure ezberdintasunean batzen gaituena zer den ulertzen lagun diezagukeenarekin zerikusia duen oinarritzko galdera da. Gure bizitza sustraitik era batera edo bestera bideratzeko erabakigarria da.

•**Bigarren galdera:** espiritualtasuna gizaki guztien berezko ahalmena da ala erlijioaren bat jarraitzen dutenena soilik?

Pertsona ez-erlijioso batek bere gizatasuna ulertu eta zabaldu al dezake dimentsio espiritualera ireki gabe? Eta bestalde, pertsona erlijioso guztiak espiritualtasunera irekiak al daude? Dimentsio espiritualak, ezinbestekoa izateaz gain, gizatasunaren bereizitasuna ulertzen lagun badiezaguke, arazo larri baten aurrean egongo gara, errealitate hori gaur egun alderatua eta aurreiritziz josia baitago.

•**Hirugarren galdera:** zer da etika eta zer esan nahi du praktikan, bada edo ez da lehenengo gauza bizitzako gidaritzan?

Baketik-ek kontzientziak giza duintasunarenganako errespetuak sortutako beharrei erantzuteko egiten duen ahalegina bezala definitzen du etika. Lagun hurkoarenganako begirunearen (bestearenganako irekiera) adierazpen (espiritual) gorena da. Elkarbizitza gakoa da. Galdera honek planteatzen duen arazoa bikoitza da. Alde batetik, etika gure egunerokotasunean present dagoen ala ez. Bestalde, eta present badago, oinarritzko funtzioa betetzen duen ala ez. Hau da, gure erabakiak baldintzatzen dituen ala apaindu besterik ez.

2.2. Hiru erantzun

Lehen itxuraren arabera badirudi galdera hauek ez dutela inongo loturarik erlijio-arte, kultura-arte edo ideologia-arte elkargunea bilatzearekin. Lotura hauek azalekoak baino sakonekoak direlako eman dezake itxura hau. Hiru galdera hauentzako erantzunen bidez, proposatzen dugunak gure helburuekin duen zerikusia ulertzen saiatuko gara.

•**Lehen erantzuna: Geure baitan bilduta ala zabalduta**

Gizakia ez dago munduan bere baitan edo kontrolatzen duen horren baitan biltzeko, gaitzen duen horretara irekitzeko baizik. Hori da nire uste sendoa. Gizakia zoriona eta bere existentziaren esangura bilatzeko dago munduan, ez bere baitan bilduta egoteko, bere gaindi baizik, bilaketan, bestearekin, besteekin eta «beste horrekin» harremanean. Hitz-joko honetan «besteak» egunerokoan gertu ditugun horiek dira, «besteak» edozein arrazoiengatik gugandik desberdinak diren haiek dira eta «beste hori» inguratzen gaituzten eta behin betiko azalpen bat eman ezin diegun misterio horiek dira: bizitza, maitasuna, pertsona, heriotza, unibertsoa...

Izaki mugatuak, bukagabeak, ez-perfektuak gara eta gure existentziaren esangura gutaz haratago dago. Kontrolatzen eta ezagutzen dugunaren baitan bilduta geure muga eta nora eza existentzialarekin behin eta berriz estropuz egiten dugu. Geure ibilbidearen behaketak eta inguruko edo aurrekoenak tesi hau berresten dute. Ez daukagun eta izango ez dugun betetasun hori bide zentzudunetan, aldrebesetan edo arraroetan bilatzen pasatzen dugu bizitza.

Entzungor eginez edo saihestuz geure mugen aurka jartzen gara. Diruaren, segurtasunaren, boterearen, protagonismoaren edo edozein kausaren atzean, baita mundu justuago bat lortzeko borrokaren bilaketaren atzean ere, askotan lortu ezin daitekeen betetasuna lortzeko bilaketa desesperatua aurkituko dugu, gizakiaz gaindiko paradisu baten nostalgia alegia. Baina hori ez dago geure kasa kontrolatu dezakegunaren eskueran.

Gutaz haratago dauden gauzekiko harremana gara eta harreman horretan hasi daiteke existentzia orientatzen eta zentzua aurkitzen. Harreman honetan, elkarrekiko berdin ikusten has gaitzke edozein desberdintasunen gainetik, izaera mugatu berarekin, eta gainditzen gaituenari irekitzeko ahalmen berarekin. Gizaki guztiok, arraza, kolore, sexu, erlijio edo izaeraz aparte muga eta transzendentzia lotura bikoitz horrek lotzen gaitu.

•**Bigarren erantzuna: Espiritualitate ahalmenarekin ala hori gabe**

Gainditzen gaituenera irekitzeak harremanean jartzen gaitu gizaki guztiok dugun espiritualtasun ahalmenarekin. Espiritualtasuna, nire esperientzia propioaren arabera, bizitza zentzu sakon eta ez-materialagoan dinamizatzen duten errealitateez kontzientzia hartzeko, horiekin bat egiteko eta harremanetan jartzeko (prozesu bat garatzea) harrera ahalmen bat da (harren bat). Errealitate horiek fedeararekin eta honek esan nahi duen guztiarekin zerikusia izan dezakete. Kasu honetan espiritualtasun erlijioso batez hitz eginen geundeke. Baina honek guztiak zerikusia izan dezake, ikuspuntu erlijioso nahiz ez erlijioso batetik, adibidez, bizitzarekiko maitasunarekin, besteekiko elkartasunarekin, maitasunaren baldintzagabetasunarekin, heriotzaren aurreko konfiantzarekin, eskuza-baltasunarekin, itxaropenarekin, barkamen edo berradiskidetze ahalmenarekin, doakotasun etikoarekin, naturarekiko identifikazioarekin, artearekiko sentsibilitatearekin, sormenarekin...

Ikuspuntu horretatik espiritualtasunak errealitate horiekiko harmena eta harreman prozesua esan nahi luke. Adibidez, ez da nahikoa maitasuna munduaren eta bizitzaren motorra dela jakitea. Jakiteaz gain, harmena eta errealitate horrekiko harremana beharrezkoa da. Harreman hori sakontze, sublimazio, barneratze, ekintza, esker on edo, besterik gabe, entzute, behatze eta kontenplazio harremana izan daiteke.

Gizakiaren dimentsio espiritualaren desplazamenduak zerbaitekin bete beharra dagoen hutsunea sortzen du. Zulo horren estalketa ordezkapenerako «absolutuen» bidez egiten da normalean. Bitan laburbildu genitzake: indibidualtasunaren absolutuak (segurtasuna, dirua, protagonismoa, jabetza, kontrola, familia, estatusa, norbere irudia, etab.), guztia neure eta nire ingurukoen bueltan dabil, eta absolutu ideologikoak (kausa politiko, erlijioso, sozial, eguneroko edo beste mota batzuenetakoak), guztia segurtasuna ematen duen arrazoi baten bueltan dabil.

Pertsona bakoitzaren giza potentziala zabaltzeak ahalmen espiritualaren garapena behar duela uste dut, absolutu faltsuen ordezkapenik gabe eta erlijio bat, bestea edo inongo erlijiorik jarraitzetik haraindi. Lurretik eta materialetik altxatze honek bestea denaren, egiten duenaren edo dirudienaren haratago eta sakonago ulertzea ahalbidetzen du. Gizakiaren dimentsio espiritualak desberdina dena bitarte edo tresna moduan begiratu eta ikusi beharrean, berezko helburu moduan begiratzea eta ikustea ahalbidetzen du, helburu bakar eta errepikaezina, duintasun, errespetu eta eskubideen jabe.

•**Hirugarren erantzuna: Etika da lehena ala bigarrena**

Etika, nire ustez, lehenik doa, ez da ez bigarrena ez eta «zerbaiten arabera». Lehena ez da dirua, jabetza, boterea, segurtasuna, norbere irudia, protagonismoa, ideologia, ezta defendatzen den kausa sozial edo politikoa ere. Lehena ematea da, giza duintasunarekiko errespetuak dakartzan exijentziei erantzutea da.

Honek ez du esan nahi diruak, segurtasunak, gure ideologiak edota era bateko ala beste apustu politikoek garrantzirik ez dutenik, hauek birkokatu egiten dira soilik. Lehena edo

garrantzitsuena dirua edo ideia politiko bat dela badiogu, hari balio absolutua emateko joera izango dugu. Horrenbestekoa izango da bere garrantzia «guztia da libre» esaldia geure egingo dugula. Lehenengo den hori lortzeko egin dezakegun edozer justifikatuko dugu. Elkarbizitza hondatzen duten gatazka suntsitzaile askok eta askok puntu honetan dute jatorria.

Etika ez da soilik lehenena, modu berezian definitzen duten bi ahalmen dituen gizakiaren proiektu nagusia da: maitatzeko ahalmena eta gaizkia eta ongia bereizteko ahalmena. Etika bi ahalmen hauek garatzen dituen prozesua baino ez da. Etika giza jokabidea ongitik bideratzeko saiakera da. Etika eta giza duintasunaren oinarria lagun hurkoa maitatzea da, izan ere, zertarako balio digu ongia eta gaizkia bereiztea bestea ez kaltetzeko ez bada, bestearekin zintzoa izateko ez bada?

Maitasuna, Nédoncelle filosofo frantsesak pasa den mendearen defintitu zuenaren arabera, «bestea beste den heinean sustatzeko borondatea da». Bestearen duintasunarekiko errespetua da, bera izate hutsagatik sustatzeko borondatea da etika justifikatzen duena. Azken finean, esan genezake gizakiaren lehen ahalmena maitatzeko ahalmena dela, eta hau garatu ahal izateko beharrezko dugula bigarrenengo bat, ongia eta gaizkia bereizteko ahalmena, hau da, ahalmen etikoa.

Nire irudipena da ongia eta gaizkia bereizten ditugula —ahalmen etikoa dugu— maitatu ahal izateko, eta hau da gizaki egiten gaituena. Maitatzeko eta ongia eta gaizkia bereizteko gaitasunek beste edozerk baino hobeto definitzen dute edozein jatorri edo identitate desberdintasunaren gainetik eratzen duten gizakiaren harremanetarako, irekitzeko eta bestearekin elkartzeko bokazioa. Etikak baldintza gabeko esperientziak bizitzeko eta gizakiaren errealitate transzendentea ulertzeko alde zurreratik prestatzen gaitu. Hori da etikaren paradoxa.

2.3. Ondorio bat

Hiru galdera horiekin eta dagozkien erantzunekin aurreko atalean egin dugun ibilbideak, gure proposamena oinarrituko duen ondorioa ateratzea ahalbidetzen digu:

Etika eta espiritualtasuna gizabanako bakoitzaren eta guztien baitan aurkitzen diren bi ahalmen unibertsal dira. Bi ahalmen hauen garapenak, ezinbesteko printzipio moduan hartuta, bizitzari eta pertsonen eta taldeen arteko elkarbizitzari aurrerapen garrantzitsuak eskain dakizkieke:

•Hobeto bizitzeko

Etikak eta espiritualtasunak, biak batera, gure garaietako noraeza existentzialari orientabide pertsonal eta nahitaezkoa aurkitzen lagun diezaiokete. Ez da formula magiko bat, ezta ibilbide idatzi edo jakin bat ere. Orientabiderako erreferentziak dira bidea norberak egin behar baitu, noski.

•Besteekin hobeto bizitzeko

Etika eta espiritualtasunaren baturak mundu konplexu eta plural batean besteekin hobeto bizitzen lagun diezaguke. Jatorri, identitate edo kultura desberdinetako pertsonok elkar ulertzeko eta errespetatzeko oinarritzko premisa batzuk konpartitu ditzakegu, horrek gure fedean, konbentzimenduan, sinesmenean, tradizioan edo berezko identitatean negatiboki eragin beharrik izan gabe.

•Hobeto hezitzeko

Etikak eta espiritualtasunak hezkuntza oinarri eta bokazio unibertsal batetik ulertzea ahalbidetuko lukeen abiapuntu bat osatzen dute. Pertsonaren heziketan eskolatik bultzatu nahi diren printzipioen, baloreen, trebetasunen eta emaitzen dispersioa eta aniztasuna oinarritzen, hierarkizatzen, ordenatzen eta sinplifikatzen lagunduko luke.

Proposamen honek zeurekin eta besteekin hobeto bizitzeko eta hobeto hezitzeko balio dezan, giza duintasuna espiritualki sublimatu behar da, bere zentzurik gorenean gizakiaren proiektu nagusizat sakonki ulertuta. Hau da, geure espiritualitate gaitasunetik bizitzerik egon behar du. Gerra, historian zehar, bere noblezasunaren sublimazio etiko eta estetiko batekin babestua izan da. Bakeak ere «gerra noblearen» ideari mendeetan zehar eutsi zionaren pareko sublimazio etiko eta espirituala behar du.

3. Proposamenaren adierazpena

Orain artean azaldutako guztia oinarri harturik, Asisetik Arantzazura Proposamena bost puntutan eta modu honetan adierazten da:

1. Oinarria

Etika izan daiteke XXI. mendeko konpartitutako espiritualtasuna, espiritualtasun aurre-erlijioso eta aurre-ideologikoa, akordioa eta herri mailan nahiz nazioartean pertsonarekiko eta elkarbizitzarekiko ulermen sozial humanista eta unibertsala ahalbidetuko duen etika laiko eta erlijio-artekoa.

2. Modua

Proposamen hau ezin da transmititu edo konpartitu arau-bidezko kode batez, zibilizazio, erlijio edo kultura bakoitzean esperientzia, garapen askatasun eta gizakiaren hobereanean uste osoa eskatzen duen hezkuntza premisa multzo baten bidez baizik.

3. Edukia

Hezkuntza-premisa hauek oinarrizko lau ikaskuntzatan laburbiltzen dira: giza izaeraren mugak ikastea, esker onekoa izatearen zentzua ikastea, kontzientziari entzuten ikastea eta giza duintasunaren ikaskuntza.

4. Akordioa

Proposamen honek erlijio arteko eta kultura arteko ikaskuntza horiek garatzeko akordioa askatasunez eta helmuga edo itxitako proiektu bat baino, asko jota ere, ibilbide baten lehen urratsa direla jakinda prestatzea eta bultzatzea iradokitzen du.

5. Helburua

Elkarguneak bilatzeak beti du identitatea gutxietsiz adostasun etiko baten alde apustu egiteko arriskua. Hala eta guztiz ere, ez dago benetako elkarketarik ez badira bakoitzaren berezitasunak mantentzen. Etika ez da adostasuna bakarrik, baldintza gabeko errealitate singularrak eta hautematea ere bada. Proposamen honen asmoa eta helburua da, identitate ezberdinak gordez eta errespetatuz, guztiak elkar ditzakeen hori bultzatzea.

4. Proposamenaren aplikazio eta garapena: oinarrizko lau ikaskuntza

Proposamen hau aplikatzen eta garatzen dituzten lau ikaskuntzek bi potentzialtasun handi dituzte: pertsona bezala berezkoagoa eta unibertsalki gizatiarragoa den hori gizakiarengan piztea bizi ezaguera moduan eta, oinarri horren gainean, identitate desberdinen arteko aditze, errespetu eta elkar-onartze sare bat ehuntzea.

Baina agian, garrantzitsuena zera da: lau ikaskuntza hauek ez dituztela mimetikoki erantzun beharreko edo guztioi modu berdinean hezitzen gaituzten portaera formula unitario edo arau-kodeak ezartzen. Arroka identifikatzen dute, askatasunez eta pertsona, kultura eta erlijio bakoitzarengan fidatuz bakoitzak bere ibilbidea garatu eta hedatzen duen unean giza garapena, garapen pertsonala, soziala eta hezkuntzako oinarritu ditzakeen zimendu sendoa.

4.1. Giza izaeraren mugak ikastea

Inor ez dago munduan betirako, pertsona oro mugatua eta ez-perfektua da, eta ez dakigu dena, ezin dugu guztia egin. Mugen kontzientzia etikaren oinarria da. Geure inperfekzioaren jakitun izan gabe ezinezkoa da «bestea» ulertzea. Neure errealitatea elkartasunaren eta giza duintasunaren esanahi sakonera iristeko plataforma bilakatzen da. Norberaren mugen umiltasunik gabe, enpatia, maitasuna edo eskuzabaltasuna harrokeria eta nagusitasun sentimendu adierazpenak besterik ez dira. Mugen umiltasuna etikak eskatzen duen «bestearikiko» enpatiarako ezinbesteko baldintza da. Hau da euren lotura.

Mugen kontzientzia oinarrizkoa da, bestalde, gure espiritualtasun gaitasuna garatzeko. Gure mugen jakitun izatea da gainditzen gaituen horretara irekitzen gaituena. Amalgabeak garela jakiteak bizitza bere zentzurik sakonenean eta inmaterialenean dinamizatzen duten errealitateengan konfiantza izatea ahalbidetzen digu. Berriz ere, mugen umiltasuna ezinbesteko plataforma bilakatzen da. Bere burua buruaskitzat eta perfektutat duenak, guztia kontrolatzen duela eta kontrola dezakeela uste duenak, gainditzen duen horri irekitzeko beharrik ez izateaz aparte, ez daki eta ezin du. Azken finean, etikaren, espiritualtasunaren eta bien arteko sinergiaren zentzu sakona ulertzeko errealitate printzipio ezinbestekoa da giza izaeraren mugak ikastea.

4.2. Esker onekoa izatearen zentzua ikastea

Etikari buruz hitz egitean azpimarratu dugu etikatik bi puntu eratortzen direla: maitatzeko gure ahalmena garatzea eta ongia eta gaizkia bereiztea. Lehenari buruz, gure maitatzeko gaitasunaren oinarrizko adierazpena da esker ona, gure bihotza «besteari» eta «beste horri» irekitzen diogulako. Bigarrenari buruz, ontzat hartu beharrekoa den hori onartzea da esker ona. Ongia nabarmentzea dakar berarekin. Kontzientziak giza duintasunarenganako errespетуak eskatzen duenari erantzuteko egiten duen ahalegina da etika. Ezin dugu giza duintasuna ulertu inguratzen gaituzten gauzen eta pertsonengan giza izaeraren eta berak sortu dituen gauzen hoberena ikusi gabe. Honengatik guztiagatik dago esker onaren zentzua etikarekin zuzenean lotuta. Bere baldintza da. Etikoki jokatu ahal izateko esker ona adierazteko gaitasuna garatzea ezinbestekoa da.

Bizitzarako aparteko opari izateagatik gure esker on sakon eta kontzientea merezi duten eta gurekin datozen errealitateetara esnatzen ikastea eskatzen du pedagogia honek,

baita errealitate horiek eskertzen erreakzionatzea ere. Esker onak barneranzko mugimendu bat eskatzen du, sentimenduek eta arrazoiek parte hartzen duten barne lanketa bat, alegia; baita baloratua izatea merezi duen horren sublimazioa eskatzen duen kanpoalderanzko mugimendu bat ere. Esker on sakonaren adierazpen kontzientea prozesu espiritual baten parte da. Espiritualtasunera irekitzea ahalbidetzen digun bitartekaritza da.

4.3. Kontzientziari entzuten ikastea

Norberarentzat etikoa zer den inork ezin du gure ordeztu bereizi. Hori gure askatasunaren parte den lana da. Inpunitate edo fidagaiztasunarekin nahastu behar ez den askatasuna da, erantzukizuna da. Etikoa dena edo ez dena bereizten lagun diezagukeen erreferentzia objektibo eta subjektiboak ditugu. Hala eta guztiz ere, prozesu hori erantzukizunean oinarritutako askatasun moduan lantzen da, geure kontzientziarekin barne elkarriketan. Arazoa izan daiteke barne komunikazio hori hondatuta egotea edo soilik kontzientzia maila azalekoa izatea. Edozein modutan, etikoa denaren bereizmenean ezerk ezin du ordezkatu kontzientziaren entzute sakonaren betebeharra. Ongia eta gaizkia bereizteko eta etikoki jarduteko gizakiaren ahalmena da.

Kontzientziaren entzutea, bestalde, ekintza espirituala da bere osotasunean. Bizitza bere zentzurik sakon eta inmaterialenean dinamizatzen duten errealitate horiekin harremanetan jartzen gaitu. Arrazional-objektiboaren mundu mugatua gainditzen duen hori ulertzea irekitzen gaitu. Kontzientzia entzutea, azken finean, gure espiritualtasun gaitasunaren garapena da.

4.4. Giza duintasunaren ikaskuntza

Giza duintasuna gizaki guztiok geure burua tresna baino helburu gisa ikustea ahalbidetzen digun esentzia da. Helburu garen heinean errespetua merezi dugu eta eskubide berdinetarako gaitasuna dugu. Giza duintasunaren ikaskuntzak besteari irekitzea esan nahi du. Bestearengan nire zati bat ikustea. Aurrean dudana pertsona horrek nik bezala sufritzen duela, nik bezala gozatzen duela, nire beldurra dituela, nik bezala barre egiten duela, nik bezala amesten duela, nik bezala maite duela... konturatzea da. Giza duintasunaren esanahia ikastea nire zati bat bestearengan eta bestearen zati bat nigan dagoela ulertzea da. Konpartitzen dugun zati hori da giza duintasuna. Giza duintasuna etikaren oinarria da.

Mugatuak gara baina ez hori bakarrik, gaitasun sortzaile mugagabea ere bagara. Espiritualtasun bide eta gaitasun gara. Gainditzen gaituenera zabal gaitzke. Gure esker on sakonaren adierazpen kontzientea merezi duten errealitateak kontzienteki ezagutu, baloratu eta goza ditzakegu. Gure mugak eta ahalmenak errespetuarekiko eta berdintasunarekiko duin egiten gaitu. Giza duintasunak pertsonaren hoberena ikusteko aukera ematen digu. Bere errealitate transzendentera hurbiltzen gaitu, gure nortasunaren zentzu sakona ulertarazten digu eta besteena errespetatzen erakusten. Eta pertsonaren itxaropena ulertzen laguntzen digu. Giza duintasunak, edozer dela ere, gizakiarenganako uste osoa irudikatzen du. Honek guztiak espiritualtasun gaitasunaren hedapena eskatzen du.

Ikaskuntza hauek ez dira liburu batetik, ikasketa edo ikerketa batetik sortu. Bizi esperientzia pertsonal batetik sortzen dira. Edukiak ez dira maisu-baieztapen moduan hartu behar, iradokizun ireki izan nahi lukeen esperientzia moduan baizik.

Esperientzia honetan zehar badago errepikatzen den zerbait. Azpimarratu behar den ikaskuntza hauen ezaugarri bat: agortezinak dira. Ez dira behin eta betirako ikasten. Beraien adierazpen berrituaren mailan argitzen eta ulertzen diren momentua iristen den arte, ezkututzen diren

esangura eta trinkotasun mailak gordetzen dituzte. Lau pedagogia hauen inguruan proposatzen den ikaskuntza beraietara etengabe itzultzea da, norbera bere buruarekin eta besteekin hobeto bizitzen ikasteko iturri bezala, egoera eta itzuli bakoitzean ikuspuntu eta ikusmuga desberdina eskaintzen baitute.

Proposamen hau eta bere lau ikaskuntzak ekarpen bat besterik ez dira. Zer egin daiteke beraiekin? Guk erein egiten dugu, inguratzen gaituen munduari zerbait esateko badute, hazi hauek fruituak emango dituzte. Oker badaude edo zentzugabeak badira, ez dira erretuko eta zerbait erakutsiko digun porrota izango dira.

Edozein modutan, proposamen hau ezin da ulertu ulermen intelektualaren bitartez soilik, bizipena eta esperientzia behar ditu, zentzurik sakonenean ulertzeko bizipena behar du. Ikaskuntza hauetako bakoitzaren funtsezko esanahiak eta ondorioak sakonean bizitzea. Hau da proposamen honekin egin dezakeguna, hura bizitzea eta gugan eragina izan dezan uztea. Nire bizitzan zehar ikasi dudan gauzetako bat zera da bizitzan guztia ez da asmatzea, baizik eta, nagusiki, konfiantza izatea.

Mundutik eta bizitzatik pasatzerakoan dugun konpromisoa mundu eta bizitza horiek hobetuko dituzten baldintzak sortzea da. Proposamen honekin, desberdinen eta gizarte desberdinen existentzia eta bizikidetzak ulertzen lagunduko digun erlijio arteko eta kultura arteko elkargune bat bilatzeko baldintzak sortzen saiatu gara. Itxaropen honekin aurkezten dugu proposamen eta liburu hau. Vaclav Havel-ek zioen: «itxaropena ez da guztia ondo aterako den uste sendoa, egiten dugunak, emaitzetaz kezkatu gabe, zentzua duenaren ziurtasuna izatea baizik».

Jonan Fernandez Erdozia
Baketik-eko Zuzendaria
Arantzazuko Bake Zentroa

ELKARGUNEAK

Bigarren partea:

BAKEAREN ALDEKO 80 ERREGU ERLIJIOSO ETA TESTU UNIBERTSAL

BIGARREN PARTEKO SARRERA

Liburu honen bigarren zatiak bi atal ditu. Lehenak, mundu osoko bakearen aldeko erregu erlijiosoak jasotzen ditu. Bigarrena, berriz, kontinente guztietako autoreek bakearen alde idatzitako borondate unibertsalezko testuen hautaketak osatzen du. 80 aipu dira guztira. Esan beharrik ez dago aipuok ez direla jasota egon beharko luketen bakarrak. Asko falta dira. Zorionez, ikaragarri. Ez lirateke hamaika liburutan ere sartuko. Bake-nahiak erreferentzia amaigabeak sortu ditu giza historian zehar, kultura eta herrialde guztietan.

Hautaketak, hortaz, ez du osoa izatea bilatzen, errealtatearen erakusgarri izatea baizik. Kontinente eta erlijio/sinesmen desberdinetako autoreek erakutsiko diguten moduan, bakearen ideia gorenak eta horri lotutako orok elkartu egiten gaitu gure gizatasunik sakonenean, edozein ezberdintasunetik haratago.

Erljioen eta erreguen hautaketak 1986an Asisen leku izan zuen erlijioen arteko topaketan du oinarria. Bigarren liburu honetan erreguak aurkezteko erabilitako antolaketak ere horri erantzuten dio. Erljio bakoitzari dagokion lehen erregua topaketa hartan errezitatu zuten.

Bakearen aldeko testu unibertsalen hautua Baketik-eko lan-taldeak bere irizpidearen araber egin du. Kontinente eta kultura guztietako, pertsona ospetsuen eta pisuzko esanahi kreatibo eta etikoa duten testuak bilatu ditugu.

Erreguen eta testuen hautaketa hau Bitoriano Gandiagaren (1928-2001), Arantzazuko fraide frantziskotarraren eta euskarazko literaturak izan duen poeta bikainenetarikoaren eta sakenetarikoaren, poemekin hasi eta amaitu nahi izan dugu. Hark eta haren olerkiak Arantzazuko Santutegiak adierazten duen bilkura irudikatzen dute: espiritualtasuna, kultura, natura eta bakea.

Bakearen bila joan nintzen

Bakearen bila joan
nintzen sarri urrutira,
bakearen bila joan;
neugan ez nuen bakea
urrutian aurkituko
nuen uste betikoan.

Bakearen bila joan
nintzen urrutira, baina
alferriko esperoan;
neugan ez nuen bakea
han ere urrun jarraikoan.

Han bertan gelditu nintzen
(ez gehiago urrutira)
neure barrura begira
ta lanean hasi nintzen
grina nahastuak, bakoitza
ekartzen bere tokira.

Atondu ahala barrura,
argitzen hasi zitzaidan
barrua eta ingurua.
Geroztik urrutira ez,
bakea ez dago urrun,
norberagan du sorgua.

Bitoriano Gandiaga

1. Bakearen aldeko erregu erlijiosoak

Budismoa
Hinduismoa
Islama
Jainismoa
Sintoismoa
Sikhismoa
Afrikako erlijio tradizionalak
Erljio amerindiarak
Zoroastrismoa
Judaismoa
Bahaismoa
Kristautasuna

Budismoa

Gizabanakoa eta gizartea eraldatzeko K.a. V. mendearen inguruan Indiako ipar-ekialdean Siddhartha Gautamak (Budak) zabalduko bidea da Budismoa. Adimenaren ohiko kategoriak gainditzen dituen errealitatearen ulermen zuzena eta pertsonala du helburutzat, Argialdi egoerara garamatzaten kontzientziaren, ontasunaren eta jakinduriaren nolakotasunak garatzeko. Munduan dauden budisten kopurua 239 milioi eta 1.500 milioi artekoa da. Zehazteko zaila den kopurua da, gehienbat Txinako egoera sozio-politikoagatik eta kulturalagatik.

1

Nonahi egonda ere,
gorputzaren eta arimaren sufrimendua
jasaten duten izakiak,
euren minetatik askatuak izan daitezela azkar.

Beldurtuek beldur izateari utz diezaiotela,
eta zapalduak aske izan daitezela.
Ahulek indarra aurki dezatela,
eta pertsonak anaiarteko izatea pentsa dezatela.

Estutasunean daudenak,
umeak, adinduak, babesgabeak,
zeru-ontasunak gorde ditzala,
eta lor dezatela azkar egoera budikoa.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

2

Orain, Budaren adeitasun eta zaintza maitekorren pean,
munduko erlijio ezberdineko sinestun bakoitzak
erlijio-, arraza- eta nazio-ezberdintasunak gaindi ditzala,
eta bat egin dezala
munduko zatiketa nola ezabatu,
armarik gabeko mundua nola berreraiki,
eta giza erreinuaren bakea eta ongizatea nola eraiki
zintzoki eztabaidatzeko,
etorkizuneko munduaren argia eta amaigabeko zoriona lortu ahal izateko.
Gure otoitzak bete daitezen Buda Jaunak eman diezagun bere adeitasuna eta bedeinkazio mai-
tekorra.

Religion for Peace, 1973, WCRP

3

Hark batzen ditu zatituta daudenak,
hark animatzen ditu anaiartekoak direnak;
hura da bakegilea,
bakearen zalea,
bakerako sutsua,
bakea eraikitzen duten hitzen bozgorailua.

«Digha Nikaya» XIII. Tevigga Sutta

«Tevigga Sutta» *Digha Nikaya* osatzen duten 39 diskurtsoetatik 13.a da. Azken hau K.a. 100. urtean bildutako historiako lehen «corpus» budista, *Theravadaren Pali Tipitaka*, osatzen duten hiru kanonetako bat da.

Hinduismoa

«Betirako erlijioa» legez ezagutzen den Indiako tradizio erlijiosoa da hinduismoa. Ez du sortzailerik, ez da erlijio bat, ezta filosofia bat ere, bien batura baino. Antolaketa zentralik eta dogma bakar gabeko tradizioa osatzen duen sineste metafisikoaren, erlijiosoaren, gurtzaren, ohituraren eta erritualen multzoa, alegia. Dena dela, bere doktrina Veda izeneko lau liburu sakratutan jasota dago. *Upanishade*kin batera, errebelatutzat jotzen diren testuen multzoa osatzen dute.

Hinduisten kopurua 800 milioitik gora pertsonakoa da. Indian biztanleen %81,3 da hinduista.

4

Gure Jauna, gida gaitzazu irrealetik errealera.

Gure Jauna, gida gaitzazu iluntasunetik argira.

Sahnti, Shanti, Shanti denontzat.

Gure Jauna, gida gaitzazu heriotzatik hilezkortasunera.

Jainko Jaun Ahalguztidunak

bakea zeruko lurralde guztietan egon dadin zilegi egin dezala.

Utz ezazu lurrean bakea izan dadin.

Utz ezazu urak lasai daitezen,

utz ezazu belarrak ongia egin dezan,

zuhaitzek eta landareek denoi bakea eskaini diezaguten.

Utz ezazu guztiok ongintzazko izakiak izan gaitezen, bakea eman ez.

Utz ezazu Lege Vedikoak munduan zehar bakea zabal dezan.

Utz ezazu guretzat gauza guztiak bake-iturri izan daitezen,

eta zure bakeak bakea gauza guztietan berrezar dezala,

eta bake hori ere etor dadila niregana.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

5

Haizeak, itsasoak, belarrak,
gauak eta egunak,
ama lurra, aita zerua,
landaredia, eguzkia,
guztiak izan daitezela ezti gurekin.
Zeruan betiko mugitzen diren
eguzkiaren eta ilargiaren modura,
ontasunaren bidea jarrai dezagun beti.
Izan gaitezen eskuzabalak elkarrekin.
Ez dezagun hil edota ez gaitezen elkarrekin bortitzak izan.
Besteen ikuspuntua ezagutu eta errespetatu dezagun.
Eta batu gaitezen.
Lagunkoia, ona, ororen ezagutzailea, ororen neurtzailea, jainko gorena, hitzaldiaren jauna den
Jainkoak bana ditzala bere bedeinkapenak...
O Jauna, ezaba ezazu neure arinkeria eta harrokeria;
neure adimena kontrolatu.
Amaierarik gabeko nahien tranpari buru eman.
Errukiaren esparrua zabal ezazu
eta izatearen itsasoa zeharkatzen lagun nazazu.

Religion for Peace, 1973, WCRP

6

Bakea izan bedi zeruan, bakea urei,
bakea landareei eta zuhaitzei!
Jainko guztiek bakea eman diezadatela!
Bake-eskaera honen bidez bakea zabal dadila!
Bake-eskaera honen bidez bakeak bakea ekar dezala.
Bake honekin izugarria baretzen dut,
bake honekin bihozgabea baretzen dut,
bake honekin gaizkia baretzen dut,
horrela bakea nagusitu dadin, zoriona nagusitu dadin!
Dena baketsua izan dadila guretzat!

Atharva Veda 19.9.14

Hinduismoaren Vedatetik laugarrena. Errituaren liburua da berau, eta saunaka eta paippalada izeneko 731 ereserkiz osatuta dago.

Islama

Koran Liburu Sakratuaren irakatsietan oinarritzen den erlijio monoteista. Islameko dotrinaren eta zuzenbidearen bigarren iturri bezala, *Hadith* edo Tradizio Profetikoak eta *Sunna* edo Mahoma profetaren irakatsi eta ekintzen erregistro historikoa ditugu.

Islama bost zutabetan oinarritzen da. Allah baino beste Jainkorik ez dela, eta Mahoma dela Allahren mezularia (*Shahadah*); otoiiza (*Salaah*); karitatea (*Zakaah*); Mekara beilaz joatea (*Hajj*), eta Ramadam garaian barau egitea (*Saum*).

Egun 1.800 milioi musulman daudela uste da.

7

Allahren izenean, barkabera eta bihozbera.
Goretsia izan dadila Unibertsoaren Jauna,
herrialdeetan eta nazioetan sortu gaituena;
elkar ezagutu dezagun,
eta gutxietsi ez gaitzen.
Etsaiak bakerantz jotzen badu,
gutako milak ere bakerantz egingo dugu, eta Jainkoarengan konfiantza izango dugu,
izan ere, Jaunak bakarrik entzuten
eta ezagutzen baititu gauza guztiak...
eta Jainkoaren zerbitzariak,
zoriontsuago dira lurrean apaltasunez dabiltzanak,
eta horiengana hurreratzekoan zera esaten dugu: «BAKEA».

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

8

Egiazki, ekintza onetan sinesten dutenek eta horiek gauzatzen dituztenek; horiek, beren sinesmena dela-eta, euren Jainkoak gidatuko ditu, eta Gutuzien Lorategian ibaiak horien azpitik jarioko dira.
Bertan, beren otoitza honakoa izango da: Aintza zuri, Allah!
Eta beren agurra: Bakea!
Eta beren otoitzaren bukaera: Gorespenak Allahri, munduen Jaunari.

Koran 10, 10-11

Korana Mahomak eginiko mintzaldien bilduma da, bere jarraitzaileek gogoratutakoak, eta bere heriotza ondoren bildutakoak, idatzitakoak eta argitaratutakoak. Musulmanentzat Koran Liburu Sakratua Jainkoak Mahomari esana da.

9

Anasen arabera, «lagun ezazu anaia nahiz eta zapaltzaile edo zapaldua izan», Anasek erantzun zion: «Jainkoaren mezulari, prest nago zapaldua laguntzera, baina nola laguntzen zaio zapaltzaileari?» «Gaizkia egin dezan galaraziz», esan zuen berak.

Bukhariko Haditha

Muhammad Ismâ'îl al-Bukhârî Haditharen egilerik errespetatuenetakoa da. Mahoma eta Islamaren beste sortzaileei buruzko anekdoten bilduma da *Haditha*.

Jainismoa

K.a. VI. mendean Mahavirak sortutako Indiako erlijioa. Indarkeriarik eza erlijiorik gorena dela dio, eta pentsamenduz, hitzez eta ekintzez maila indibidual eta sozialean horixe betetzean insistitzen du. *Tattvartha Sutra* testu sakratuak esaldi honekin laburbiltzen du: «bizitza oro elkar sostengatzen da».

Bere jokabide-kodea bost boto betetzean datza: Ahimsa (indarkeriarik eza), Satya (egiatasuna), Asteya (ez lapurtzea), Brahmacharya (kastitatea) eta Aparigraha (materiazkoarekiko aldentzea).

Egun jainismoak lau milioi jarraitzaile dituela uste da.

10

Argitutako guztiek zabalduko berri onaren
esentzia bakea eta maitasun unibertsalak dira.
Jaunak zabaldu du berdintasuna Dharma dela.
Izaki guztiei barkatzen diet,
eta izaki guztiek barka nazaten uzten dut.
Denen adiskide naiz, eta inoren etsai.
Indarkeria munduko miseria guztien jatorriaren zergatia dela badakit.
Izan ere, indarkeria menpekotasunarekiko lotura da.
«Izaki bizidunei minik ez egitea».
Hau da bizitza espiritualaren
betirako bide iraunkor eta aldaezina».

Arma bat, haren indarra edozein izanda ere,
beste arma hobea batek gainditu dezake beti;
baina inongo armaren botereak ezingo du, ordea,
indarkeriarik eza eta maitasuna baino handiagoa izan.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

11

Gida nazazu heriotzatik bizitzara,
gezurretik egiara.
Etsipenetik itxaropenera gida nazazu,
beldurretik konfiantzara.
Gorrototik maitasunera gida nazazu,
gudatik bakera.
Bakeak gure bihotza, gure mundua
eta gure unibertsoa
bete ditzan ahalbidetu ezazu.

Satish Kumar

Ingalaterran bizi den monje jainista ohia, desarme nuklearraren defendatzailea.

12

Gizakiak haserrea barkamenarekin
eraitsi behar du,
harrotasuna apaltasunarekin,
hipokresia xalotasunarekin menperatu,
eta zikoizkeria alaitasunarekin.

Samanasuttam 136

Korrante jainista ezberdinek onartzen duten 756 gathek
(Acarya Shri Vidyanandajik bildutako ereserkiak) osatzen duten bilduma.

Sintoismoa

Zeruko eta lurreko jainkotasun oro (kami) gurtzeko japoniarrek erabiltzen duten ekintza orori dagokio «Shinto» terminoa. Bere jatorria Japoniaren hasierari berari lotuta dago. Kami batzuk lekuan lekukoak dira, eta toki zehatz bateko izpiritu edo jenio modura ezagutzen dituzte, baina beste batzuek objektuak eta prozesu naturalak adierazten dituzte.

Japoniar kulturarekin hertsiki identifikatzen den, eta arbasoak gurtzen dituen, animismo naturalista legez deskribatu daitekeen erlijiotzat jotzen da. 100 milioi jarraitzaile ditu (Japonen batik bat).

13

Nahiz eta inguratzen gaituen itsasoan zehar bizi direnak
gure anai-arrebak direla uste izan,
zergatik daude etengabeko arazoak gure munduan?
Zergatik altxatzen dira haizea eta olatuak inguratzen gaituen itsaso honetan?
Haizeak azkar ufa egin dezan
eta mendien gailurretan zintzilik dauden
lainoak urrutira bidal ditzan besterik ez dut nahi.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

14

O goren hori, munduko baldintza ilunduetara zure argia ekartzen lagun iezaguzu!
Zure zerbitzari apalokin ona izan zaitez
eta zure borondatea betetzen lagunduko digun
argiarekin bedeinka gaitzazu!

O goren hori,
munduan zehar dauden zerbitzariak argi itzazu beste ahalegin batzuetara, bide zuzenetik,
bizitzatik eta erlijioen fundatzaile handiek erakutsi duten
fedearen gertakarietatik aldentzen diren zure seme-alabak gidatzeko.

Zure indarrarekin buru izpiritual guztiak bedeinka itzazu
eta sufritzen ari direnei alaitasuna,
erosotasuna eta babesa ematen utz iezaguzu!

Religions for Peace, 1973, WCRP

15

Zerua aita balitz bezala begira ezazu,
lurra ama balitz legez,
eta gauza guztiak zure anai-arrebak bailiran begira itzazu.

Atsutako Kamiren orakulua

Japoniako santutegirik gurtuena da Atsutakoa; hemen Japoniako sinbolo nazionaletako bat den Kusanagi ezpata gordetzen da.

Sikhismoa

Guru Nanak (1469-1539 K.o.) sortu zuen sikh erlijioa. *Guru Granth Sahib*en, sikhen liburu sakratuan, jasotzen diren sikhismoaren Hamar Guruen irakatsietan eta Jainko bakar baten sinesmenean errotzen da sikhismoaren oinarritzko doktrina. Eguneroko ekintzetarako sikhismoak hiru printzipio ezartzen ditu: etengabe Jainkoari dei egitea edo hari buruz meditatzea, ogia zintzo irabaztea eta lanaren fruituak gizadiarekiko maitasun eta errukiaren adierazle modura elkarbanatzea.

Erlijio hau 23 milioi pertsonen jarraitzen dute; gehienak, Indiako Punjab lurraldekoak.

16

Jainkoak gure ekintzen arabera galdetzen digu,
ez gure arropen arabera;
Egia guztiaren gainetik dago,
baina oraindik gorago dago egiazko bizitza.
Jakin ezazu maite dugunean Jainkoa lortzen dugula,
eta inor menpean hartzen ez duten ondorioetan
dagoela garaipena.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

17

Justiziaren erreinua nagusitu dadila!
Sinestunak maitasunean batu daitezela!
Sinestunak apalak izan daitezela,
gorena beren jakinduria,
eta Jainkoak gida ditzala beraien jakinduriak.

Religion for Peace, 1973, WCRP

18

Nanakek dio: benetako maitaleak betirako maitatuan barneratzen diren horiek dira. Bere harremana onen eta gaiztoen artean ezberdintzen duena ez da benetako maitalea, haatik, kalkulutan harrapatzen dute.

Asa-ki-Var

Sikhismoaren sortzaile den Nanak Devji Guruak idatzitako 24 estrofen bilduma da Asa-ki-Var.

Afrikako erlijio tradizionalak

Afrikako tradizioen arteko ezberdintasun kulturala eta erlijiosoa dela-eta, ezin da adostasunik lortu afrikako erlijio guztiak multzo bakar batean sailkatzeko. Afrikako kontinentean bi erlijio arrotzek izan duten eragina erabakigarria izan da: kristautasuna eta islama. Gurtza tradizionalak Afrikako mendebaldean (Guinea Bissau, Sierra Leona, Liberia, Boli Kosta, Burkina Faso, Togo, Benin) nahiz Afrikako ekialdean eta hegoaldean (Tanzania, Malawi, Mozambique, Zimbabwe, Botswana, Madagaskar) garrantzitsuak dira. Zenbait ikerketek afrikako erlijio tradizional ezberdinen sinestunak orotara 68 milioi direla finkatzen dute.

19

Jainko Ahalguztiduna,
edozein korapilo lotzeko orduan
ekidin ezin dezakegun Erpuru Handia:
zuhaitz indartsuak zatitzen dituen eta
Orro egiten duen Trumoia;
dena ikusten duen Jauna,
baita, hemengo, lurreko arroka gaineko
antilopearen oinatzak ere.
Gure deia erantzuten duda-mudatan ez dabilen hori zara.
Bakearen kantoi-harria zara.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

20

Bakea bedi gurekin.
Herriak lasaitasuna izan dezakeela esan ezazu.
Bakea bedi gurekin.
Eta herriek hazten jarrai dezatela.
Bakea bedi gurekin.
Jendeak, jendetzak eta animalia-taldeek
aurrera egin dezaketela eta gaixotasunetik at bizi daitezkeela esan ezazu.
Bakea bedi gurekin
eta lurra jarrai dezala oparoa izaten,
eta kalabaza-katilua ontzi bilaka dadila.
Bakea bedi gurekin.
Beren buruez baietz egin dezatela, baso birjinalean
hitz gaixoak idorrera kanporatuak izan daitezela.
Bakea bedi gurekin.

Kikuyuen bakearen aldeko erregua, Kenia

Kikuyu herriko arbasoak 1200etik 1600era bitarteko Bantuen migrazio garaian iritsi ziren Keniara. Egungo herri Kikuyua-
ren sustrai kulturala Thagikuetatik, inguruko kolonoetatik datorrela dirudi.

21

Gaua bakean igarotzen utzi didazun Jainkoa,
utz iezadazu eguna bakean igarotzen.
Noranahi joanda ere,
neure bidea bakegilea izan dadila.
Gida itzazu neure pausoak, Jauna.
Hitz egiten dudanean,
ekidin ezazu niri buruzko iraina.
Gose naizenean,
gorde nazazu marmarka jardutetik.
Ase naizenean,
babes nazazu harrokeriatik.
Eguna zure deika dihardut.
Jaunik ez duzun Jauna.

Boran, Kenia

XVI. mendean Etiopiako hegoaldeko lurralde menditsuak utzi zituzten Oromo herriko langile migratzaileetatik eratorritako taldea dira Keniako Boranak.

22

Olisa, begirada luzekoa,
labana eta ñamea eusten dituzu,
edonori zati bat eman ez gero, hark jan egingo du.
Osasuna eman iezaguzu,
eman bizitza luzea;
eman iezaguzu jana eta edaria.
Geure umeak bedeinka itzazu:
aitak semea treba dezala;
eta semeak aita ere zaindu dezala.
Norbera bere pentsamenduen arabera garatu dadila.
Ontasunean pentsatzen duen ororentzat ere ona izan dadila;
Baina gaizkia gaizki pentsatzen duen atzetik joan dadila.

Igbo, Nigeria

Igboak Afrikako etnia zabalduenetakoa da. Igbo gehienak Nigeriako hego-ekialdean daude. Bertako biztanleen %17 osatzen dute. Kamerunen eta Guinea Ekuatorialean ere kopuru esanguratsua osatzen dute.

23

Jainkoak bakea eta osasuna eman diezazkigula,
utz diezaiola jende beltzari eta gorriari lurrean bakean bizitzen,
eta munduan bizitzen, bihotza alai izateko.
Gure bizitza luzea eta sakona izan dadin
eta oilo txuri handi batek zerurako (ortzirako) gure bidea gida dezala.

Serer, Senegal

XIV. mende inguruan lurraldeko herri guztien islamerako konbertsioa behartzen saiatu ziren Fulaniak. Horien presioa zela-eta, Serereak Senegal ibaiko haranak utzi zituzten, Senegaleko Sine eta Saloum ibaietako haranetan eta Ganbiako ipar-mendebaldean ezartzeko.

24

Aita gurea, hau da zure unibertsoa eta hau zure borondatea:
izan gaitzen bakean, jendearen arimak lasai utz itzazu.
Gure aitaren artea, ken ezazu gaitza gure bidetik.

Nuer, Sudan

Baro ibaitik, mendebaldetik, Nuerak orain dela 200 urte baino gutxiago Etiopiako Ganbela lurraldean eta Sudaneko hegoaldean, Nilo Garaia lurreko ekialdeko Nasir lurraldean ezarri ziren.

Erlijio amerindiarrak

Europarrak iritsi aurretik, Amerikako kontinenteko kolonaurreko kulturari eta herrien aniztasunari dagokio amerindiar terminoak. Kolonialismo kulturalak eta izurriteek herri eta kultura horietako asko desagerrarazi zituzten; beste batzuk aldiz, Europak egindako konkistari erantzun nahian, herri berrietan eta konfederazioetan batu ziren.

Mètreux etnologo frantziarraren arabera, Suaren Lurraldetik Kanadako ipar-reko muturrerainoko tribu indigena guztiak gauza guztien abiapuntu eta zergatia den Izpiritu Handi bat badela sinesten dute. Bizitza eta heriotza Izpiritu honen menpean leudeke. Animismo mota hau jainkotiarra adierazteko metaforen erabileran eta gizakien, animalien eta landareen arteko lotura-sentimenduan oinarritzen da. Beste ezaugarri komuna «historiaren» zentzua-ren gabezia da; memoria kolektiboa narratibekin formulatzen dute, istorioak hedabide kulturalerako biderik onenak izanik.

25

Gure arbasoen Izpiritu Handia,
neure pipa zugana altxatzen dut;
lau haizeetako zure mezulariengana, eta
zure semeez arduratzen den Ama Lurrarengana.
Emaiguzu jakinduria
gure umeei maitatzen, errespetatzen eta
elkarrekin onak izaten irakasteko,
bakea ahaztu gabe hazi ahal daitezten.

Lur honetan ematen dizkiguzun
gauza on guztiak
elkarrekin banatzen ikas dezagun.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

26

Gure bihotzak inguratuz izotza urtzen duen gupida ufada
eta urrutiko udaberi eta udari buruz hitz egiten digun lurrina botatzen duzun
hegoaldeko Izpiritu Handia,
barreia itzazu gure beldurrak,
benetako errealitate bizen su-garretan piztu ezazu gure maitasuna.
Egiazki indartsua dena gozo ere badela,
jakintsua denak justizia errukiz ezartzen duela eta
egiazki ausarta denak gupidaren balioa indartzen duela
irakatsiezaguzu.

Ekialdeko Izpiritu Handia,
eguzkia ateratzen den lurraldea,
zure mendi garaiekin eta zelai zabalekin eta askeekin
saiatzearen garbitasunetik datorren eta
ongi diziplinatutako bizitzaren haizeetan dabilen jantzien askatasunetik datorren
bakearen ezagutzarekin bedeinka gaitzazu.
Irakatsiezaguzu azkena hasiera baino hobea dela,
eta egunsentiko eguzkia ez dela alferrik goresten.

Zazpi erregu sakratuetatik

27

Ez ezazu zure onura bakarrik bilatu, jendea ere kontuan har ezazu.
Oparotasunean bazabiltza ez esan, «besteek ez naute behar, ez dut besteekin denbora alferrik
galdu behar».
Ehizan zorionekoa bazara, besteekin bana ezazu.
Are eta gehiago, erraz akabatu daitezkeen itsas-lehoi ugari dagoenean jo-puntua erakutsie-
zaiezu. Utz ezazu noizean behin besteek zeure zatia izaten.
Dena zeuretzat pilatu nahi baduzu, jendea zugandik urrutiratu egingo da, eta inork ez du zure-
kin egon nahi izango.
Noizbait gaisotuko bazina inork ez lizuke bisitarik egingo lehen eurez ez baitzinen arduratu.
Yamanak ez ditu atsegin bekoizkeriaz jokatzeko duten pertsonak.

Yamanen sarbide-erritua

Orain dela 6.000 urtetik hona Suaren Lurrean bizi diren Yamanak (jendea) indigena nomadak dira, itsasoko fruituen
biltzaileak.

Zoroastrismoa

Zaratustra profetak Iraneko iparmendebaldeko lurraldean (Persia) k.a. 1600-1200 bitartean sortu zuen zoroastrismoa. Bere irakaspenak Avestan biltzen dira (gatha edo ereserki metrikoen bilduma, K.a. 600. urte inguruan modu ordenatuan kodifikatua). Ahura Mazda, «Jakinduriaren Jainkoa»ren gurtze monoteistan eta Egia (Asha) eta Gezurra (Druj) aurrez aurre jartzen dituen unibertso osoan barreiaturik dagoen dualismo etikoan oinarritzen da. Pertsona baten patua bi horien arteko aukeraren arabera da. Egungo estimazioen arabera, 2,6 milioi jarraitzaile ditu.

28

Munduko miseria ezabatzeko Jainkoari erregutzen diogu:
ezjakintasunaren aurrean ulermenaren garaipena,
aihergatasunaren aurrean eskuzabaltasunaren garaipena,
mespretxuaren aurrean konfiantzaren garaipena eta
gezurraren aurrean egiaren garaipena.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

29

Belauniko,
eskuak bilduta,
nire baitan lanean diharduen izpiritu santuaren adierazpen egokiaren alde eskatzen dut:
maitasun eta ulermen honengatik, egia eta justizia;
lurreko gizakien sufrimenduak arin ditzakeen
benetakoa eta itxurazkoa ezberdintzen duen jakinduriagatik.

Jainkoa maitasuna da, ulermena, jakinduria eta bertutea.
Maita dezagun elkar,
izan gaitezen errukiorrak eta barka dezagun,
eman iezaguzu bakea.

Bizitza altruista izateko zoriona izan dezadan,
besteei ongia egitearena.
Zoriona beste gizakitik datorren
zoriona duen horretan dago.

Religion for Peace, 1973, WCRP

30

Ez egin besteei zuri kalte egin diezazukeen ezer.

Shayast-na-Shayast 13.29

Shayast-la-Shayast («garbia eta lohia») Pahlavieraz (idazkera persiarra) idatzitako testuetako bat da, hau ere sakratutzat jotzen dena, eta Zoroastroren irakaspenak zabaltzen dituena.

Judaismoa

Torak (Legearen bost liburu sakratuak: *Hasiera*, *Irteera*, *Lebitarrena*, *Zenbakiak* eta *Deuteronomioa*) barneratzen dituen bost irakatsiak betetzean oinarritzen den erlijioa. Gizaki oro behartzen duten zazpi agindu moralen iturri nagusia da, eta baita judutarrak behartzen dituen 613 agindu erlijiosoena ere. Agindu biblikoak ahozko tradizioek idatziz jarri zuten exegesi ezberdinek iruzkintzen, azaltzen, zabaltzen eta gorpuzten dituzte: «Mishná» eta barneratzen duen bilduma, *Talmuda*.

Munduan zehar 17 milioi judutar daudela uste da.

31

Zatozte, goazen Jaunaren mendi-gailurrera,
ibil gaitezen goreneko bideetatik.
Eta ezpatak golde bihurtuko ditugu,
eta lantzak inauskailu.
Nazioek ez dute beste nazioen aurka
ezpatarik altxatuko
eta guda ez da gehiago nagusituko.
Eta inor ez da beldurtuko,
Gudarosteen Jaunak hitz egin baitu.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

32

Zuretzat gorrotagarria dena ez egin auzokoari. Hau da Tora osoa; bestea iruzkina baino ez da.

Talmud, «Shabbath» 31a

Judutar lege, etika, ohitura eta historiaren inguruko eztabaida errabirikoz osatutako bilduma zabala da *Talmuda*.

33

Gorrotoa menperatzeko, laguna lagundu aurretik lagun ezazu etsaia.

Tosefta, «Baba Metzia» 2.26

Laburtze aldera, *Mishnan* (Toraren lege tradizionalen eta interpretazioen bilduma) sartu ez ziren iruzkinak eta interpreta-
zioak gehitzen dituen eranskina da «Tosefta». *Mishnak* dituen sei ataletako laugarrenean txertatzen den tratatua da
«Bava Metzia».

Bahaismoa

Profeta fundatzailea den Bahá'u'lláh-ren irakaspenak jarraitzen dituzten jarraitzaileez osatutako erlijioa da: gizadiari bere borondatea progresiboki errebelatu dion Jainko bakarra dago. Bahai ikuspuntuaren arabera, Jainkoaren mezulariek ekarritako erlijio bakoitza zibilizazioaren garapen izpiritualaren bidearen etapa jarraiak dira. Bahaismoak gizadia arraza bakar kontsideratzea eta gizarte mundialaren batasunaren eguna ditu ardatz. Bahaismoa oso zabaldua dago munduan, sei milioi jarraitzaile inguru ditu.

34

Oparotasunean eskuzabala
eta zoritxarrean esker onekoa izan zaitez.
Epaian zuzena
eta hizkuntzan zuhurra izan zaitez.
Iluntasunean dabiltenentzat argia
eta atzerritarrarentzat etxea izan zaitez.
Itsuarentzat begia izan
eta oker dabilten oinentzat argi gidatzailea izan zaitez.
Gizadiaren gorputzarentzat
bizitza-ufada izan zaitez,
giza bihotzaren lurrarentzat ihintza,
eta apaltasunaren zuhaitzaren fruitua.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

35

Maitasuna gauzatzen denean
eta lotura izpiritual idealak
gizakien bihotzak batzen dituenen,
giza arraza guztia goratuko da,
eta mundua etengabe izpiritualki eta pozarren haziko da,
eta gizadiaren zoriona eta lasaitasuna
neurrigabe haziko dira.

Guda eta distentsioa baztertuak izango dira,
urruti desadostasuna eta liskarra,
eta bake unibertsalak nazioak eta munduko jendea
batuko ditu.

Familia baten modura biziko da gizadi osoa,
itsasoko olatuak legez nahastuko da,
ortziko izarren modura egingo du argi,
eta zuhaitz bereko fruitua bezala helduko da.

Hori da gizadiaren zoriona eta poza.
Hori da gizakiaren, aintzaren eta betiereko bizitzaren argia;
hori da kontzesio jainkotiarra.

Abdul-Bahá, «Bake Unibertsalaren aldarrikapena»

Hil aurretik, Bahá'u'lláh-k bere seme nagusia Abdu'l-Bahá oinordekoa eta bere irakatsien interprete bakarra izendatu zuen. Bahá'u'lláh-k «Konbenioaren ardatz» izendatu zuen, eta bahai guztiei esan zien berau Fedearen Buru bezala hartzeko. Dena dela, Bahá'u'lláh-k jarraitu du bahaismoaren profeta bakarra izaten.

36

Bihotzaren pentsamendu bakoitza maitasun eta batasunean biltzeko eskatzen dizuet. Gudarako pentsamendua datorkizuenen, ordezka ezazue bakearen pentsamendu indartsuagoarekin. Gorrotoaren pentsamendua maitasunaren pentsamendu indartsuagoarekin suntsitu behar da. Gerra pentsamenduek armonia, ongizate eta eduki oro suntsitzen dute. Maitasun pentsamenduek anaidia, bakea, adiskidetasuna eta zoriona eraikitzen dute.

Abdul-Bahá, «Solosalldiak Parisen»

Kristautasuna

Euren fedea gorputz egin, hil eta berpiztu den Jainkoaren Semea den Nazaretoko Jesusengan, Kristorengan, fedea aitortzen duten doktrina eta komunitate multzoa da, nahiz eta multzo horien artean jarrera, praktika eta doktrina ezberdinak egon. Beraz, Jainkoaren eta gizakien artean harreman-eredu berria finkatzen da: Jainkoak bere Berri Ona (Ebanjelioa) Jesus bere semearen bidez zabaltzen du. Ondorioz, Jesusen bizitza Jainkoak gizakiei eginiko errebelazioaren gauzatzea da: gizakien salbazioa lortzeko maitasunez, bere Semea ematen duen Aita Jainkoa.

1.100 milioi pertsona dira kristautasunaren jarraitzaileak (%59 katolikoak, %29,5 protestanteak, %9,5 ortodoxoak, %2 besteak).

37

Zorionekoak Bakea eraikitzen dutenak
horiek Jainkoaren Semetzat hartuko baitituzte.
Maita itzazu zure etsaiak,
gorroto zaituztenei egin ongia,
madarikatzen zaituzten horiek bedeinka itzazu,
jotzen zaituztenen alde egin ezazu otoitz.
Masailean jotzen dizunari
eskain iezaiozu bestea.
Eta estalkia kentzen dizunari
ez iezaiozu berokia uka.
Eta zuri egitea gustatuko litzaizukeena
besteei egin.

1986an Asisen eginiko erlijioen arteko bilkura

38

Noizbait entzun duzue: maitatu lagun hurkoa eta gorrotatu etsaia. Nik, berriz, hau diotsuet:
maitatu etsaia, madarikatzen zaituena bedeinkatu, gaitzesten zaituztenei on egin, eta otoitz
egin laidotzen zaituztenen eta segika dituzuenen alde; horrela, zeruko zeuen Aitaren egiazko
seme-alaba izango zarete, hark zintzoentzat eta gaiztoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzen-
nentzat eta zuzengabeentzat isurtzen euria.

Mateo, 5.43-48

«San Mateoren Ebanjelioa» Itun Berriko lau Ebanjelioetako bat da.

39

Jauna, egin nazazu zure bakearen zerbitzari.
Gorrotoa nagusi den lekuan, nik maitasuna jar dezadala,
iraina nagusi den lekuan, barkamena jar dezadala,
haserrea nagusi den lekuan, batasuna jar dezadala,
gezurra nagusi den lekuan, egia jar dezadala,
zalantza nagusi den lekuan, sinesmena jar dezadala,
etsipena nagusi den lekuan, itxaropena jar dezadala,
ilunbea nagusi den lekuan, argia jar dezadala,
tristura nagusi den lekuan, poztasuna jar dezadala.

Nire jokabidea izan dadila, Jauna,
ez ni poztu nazaten, poztu dezadala baizik,
ez ni onartu nazaten, onar dezadala baizik,
ez ni maita nazaten, maita dezadala baizik.

Izan ere, Zuk erakutsi diguzu,
ematea dela, hartzaile izateko bide;
norberaren buruaz ahaztea dela nork bere burua aurkitzeko bide;
barkatzea dela, barkamena lortzeko bide;
eta hiltzea dela betiko bizitzara berpizteko bide.

Egilea Asisko San Frantzisko dela uste da

2. Bakearen aldeko testu unibertsalak

Bakea eskari eta desio bezala

40

Itzul iezadazue aita, itzuli ama,
itzuli aitona eta amona;
itzuli seme-alabak.
Itzul iezadazue neure burua.
Itzul iezadazue giza arraza.
Bizitza honek irauten duen bitartean, bizitza honek,
itzul iezadazue bakea.
Sekula ez dadila buka.

Sankichi Toge

Hiroshimako bonba atomikoak hiru kilometrora harrapatu zuen 28 urteko olerkari japoniarra. Gerra ondoren buru bakezale bilakatu zen. 1956an hil zen.

41

Imajina ezazu pertsona guztiek
bizitza bakean bizi dutela.
Ametsetan ari naizela esan dezakezu,
baina ez naiz bakarra.
Egunen batean elkartuko garela espero dut,
eta mundua bat eginik biziko da.

John Lennon

(1940-1980) Musiko eta konpositore britaniarra. The Beatles taldeko partaidea eta fundatzailea.

42

Hau da gure oihua, hau gure eskaria: bakea munduan.

Hiroshimako bonba atomikoaren biktima izan zen Sadako Sasakiren omenez (1943-1955) eraikitako estatuan dagoen inskripzioa, Hiroshimako Bakearen Parkean.

Norbaitek paperezko figurazko (origami) mila kurrilo egin ondoren jainkoek bere nahi bat bete zutela dio tradizio japoniar zahar batek. Dena dela, sendabidea berarentzako bakarrik eskatzea ez zela bidezkoa pentsatu suen Sadakok, eta berak egingo zuen esfortzuak munduko biktima guztientzako bakea eta sendabidea lortzeko balio zezala eskatu zuen. 14 hilabete ospitalean. Botika-poteen paperarekin eta aurkitzen zituen beste batzuekin paperezko 644 kurrilo egitea lortu zuen, 1.300 egin nahi bazituen ere. Istorio hau hain hunkigarria izan zen, non Japoniako mugetatik haratago iritsi, eta mugimendu bakezaleen mundu-erreferente bilakatu zela.

43

Erreinuaren,
gizakiaren eta bere justiziaren
defentsan idazten dut. Bakea
eta hitza
eskatzen ditut. Hau esan dut
«isiltasuna»,
«itzala»,
«hutsunea»
eta abar.
Hau esaten dut
«gizakiaren eta bere justiziaren»
«itsas barea»,
uzten didatena.
Hau eskatzen dut
bakea eta hitza.

Blas de Otero, «Pido la paz y la palabra»

(1916-1979) Olerkari bilbotarra, 50. hamarkadako olerkaritza sozialaren ordezkarietako bat.

Bakerako arrazoiak

44

Mundu bidezkoago eta gizatiarrago bat eraikitzen jarri behar dugu gure ahalegina. Eta zera esan nahi dut argi eta garbi: horrelako mundua posible da. Gizarte berri hau eraikitzeko eskuak lagunkiro luzatu behar ditugu, gorrotorik eta aiherkunderik gabe, eta irmotasuna erakutsi, justizia eta egiaren defentsan zalantzarik izan gabe. Ukabilak estututa izanik haziak ezin direla erein badakigulako. Ereiteko eskuak zabaldu behar ditugu.

Adolfo Pérez Esquivel

(1931-) Argentinako eskultorea, arkitektoa eta bake-gizona.
Iberoamerikako giza eskubideen defentsagatik 1980an Bakearen Nobel Saria jaso zuen. Ameriketako Merkataritza Askeko Eremuaren aurkako protestetan aktiboenetakoa da egun.

45

Dugun onena eta garen guztia emateko dugun ahalmenagatik sortzen da bakea, guztiei babesa ematen dien mundu bat eraikitzeko. Baina besteentzat bakoitzak duen onena eta den guztia eskaintzea ahalbidetzen duen eremua bermatzeko lanak sorrarazten du.

Hafsat Abiola

(1970-) Bere herrialdean eta munduan emakumea, gaztaroa eta demokrazia sustatzen jardun duen ekintzaile nigeriar gaztea.

46

Momentu ona da gerra bat ez dela inoiz irabazten errepikatzeko. Gerra sekula garaipena ez dela gogoratzea ona da. Ez dio axola historia liburuek kontrakoa esaten badute. Gerraren kostu psikologikoak hain dira handiak non edozein garaipen ezerezean geratzen den. Bakeak soilik irabaz dezake, eta bakeak irabazteak, gatazka armatua ekiditeaz gain, bortizkeria indibidualaren eta kolektiboaren arrazoiak ezabatzea esan nahi du: injustizia eta zampaketa, ezjakintasuna eta pobrezia, intolerantzia eta bazterkeria. Mendeetan zehar zibilizazioen ibilbidearengan eragin izan duen gerra-kultura ordezkatzeko balio-sistema berria eraiki behar dugu. Garaitzen duen bakeak, oinarri demokratikoen gainean, inor baztertua sentituko ez den tolerantziatzko eta esku-zabaltasunezko esparru sozialaren aldeko gure konpromisoa esan nahi du.

Federico Mayor Zaragoza

(1934-) Biokimikoa formazioz. UNESCOko Zuzendari Orokorra izan da (1987-1999). ONUko Idazkari Nagusiak 2000an Zibilizazioen arteko Aliantzarako Maila Garaiko Lehendakarikide izendatu zuten. Indarkeriarik ezaren eta Bakearen aldeko Hamarkadarako Nazioarteko Koordinazioaren Ohorezko Batzordearen partaite da.

47

Askatasunaren eta justiziaren kausak planetako urrutiko bazterretan aurkitzen ditu enpatiazko erantzunak. Sinesmena edo kolorea edozein izanda ere, leku guztietako jende adimentsua eta sentikorra zentzua duen existentziaren giza beharraren jabe da, oso sakonean erroturik dagoen beharra... Eskubide politiko beteak dituzten gizarteetan bizitzeko zorion nahikoa duten horiek gure aztoratutako planetako beste inguru batzuetan dauden zorion gutxiagokoei lagun diezaiekete. Munduan euren oinatza uzteko prest dauden gizon eta emakume gazteek, euren mugez gainetik eskubide galduen itzalpean dauden lurretara zuzendu gura lezakete begirada, norberren mugetatik haraindi... Arren, erabil ezazue zuen askatasuna geurea sustatzeko.

Aung San Suu Kyi

(1945-) 1962az geroztik boterean dirauen diktadura militarren aurka diharduen oposizio birmandarreko figura enblematikoa. 1991an Bakearen Nobel Saria.

48

Gizartearen elkarbizitza osasuntsurako hazi ehotua da bakea.

Hausa atsotitza, Nigeria

22 milioi lagun izanik, Afrika Erdiko talde etnikorik handiena da Hausa herria. Nigeriako 140.000 kilometro koadro baino gehiago osatzen du Hausa herriak. 1000tik gora urte daramate bertan bizitzen.

Indarkeriaren absurdoa

49

Indarkeria gezurrekin bakarrik estal daiteke, eta soilik indarkeriaren bidez mantendu daiteke gezurra.

Aleksandr Solzhenitsyn

(1918-) Errusiako historiagilea, olerkaria eta dramaturgoa. Gulagak edo konzentrazio-esparru sobietarrak dira bere gaia. 1970an Literatura Nobel Saria irabazi zuen, eta 1974an erbesteratu zuten.

50

Bakearen arazoan aurrean beldurtien ihesbidea da gerra.

Thomas Mann

(1875-1955) Idazle alemaniarra, nazionalitate estatubatuarduna, *Der Zauberberg* edo *Mendi magikoa* lanaren egilea, eta 1929an Literatura Nobel Saria.

51

Gerra, lehenik eta behin, norbait hobeto egongo ote denaren itxaropena da; gero, beste kidea okerrago egongo dela ustea; ondoren, hori hobeto ez dagoela pentsatzeak dakarren asetzea; eta, azkenik, bakoitza okerrago dagoela ikusteak dakarren ezustea.

Karl Kraus

(1874-1936) Idazle austriarra. XX. mende hasierako Vienako gizartearen izpiritu satirikoena eta garratzena izan zen. Burgesiaren eta kotsakratuak zeuden baliabide literario eta artistikoen akatsak astindu zituen.

52

Indarkeria ez da praktikoa, «begia begi truk» filosofiak azkenean denok itsu uzten gaitu-eta. Denon suntsipena dakarren beherezko espirala izanik, moral gabekoa da.

Martin Luther King

(1929-1968) AEBetako afroamerikarren aldeko Gizarte Zibilen aldeko Mugimenduaren ekintzailea. Bakearen Nobel Saria 1964an. Bozka eskubideen alde, bazterkeria ezaren alde eta oinarrizko eskubide zibilen aldeko martxak antolatuz eta gauzatu zituen.

53

Sekula ez du arma batek arazo moralik konpondu. Konponbide bat inposa dezake, baina ezin du hori bidezkoa izatea bermatu.

Ernest Hemingway

(1899-1961) Idazle eta kazetari estatubatuarra. Literatura Nobel Saria 1954an.

Bakea prozesu gisa

54

Bakearen eta aurrerapenaren bilaketak ezin du, urte batzuen buruan, garaipenarena edo porrotarena izan. Saiakerez eta akatsez nahiz arrakastez eta ezbeharrez betetako bakearen eta aurrerapenaren bilaketa ez dugu inoiz alde batera utzi behar, eta ez dugu haren aurrean lasaitu behar.

Dag Hammarskjöld

(1905-1961) (Suedia) Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusia 1953ko apirilaren eta 1962ko irailaren 18a bitartean. Egun horretan hil zen istripuz, Katangako gatazkan Zaire eta Kongo Belgikarraren arteko bitartekaritza-lanak egiten ari zela.

55

Edozein txepel azkarrek gauza handiagoak, konplexuagoak eta bortitzagoak egin ditzake. Kontrako bideari ekiteak bikaintasunezko ekintza bat eta adorezko beste asko eskatzen ditu.

Albert Einstein

(1879-1955) Alemanian jaiotakoa, eta 1940an estatubatuar nazionalizatua. XX. mendeko zientzialaririk ezagunena eta garrantzitsuenak da. Bernako (Suitza) Patente-Bulegoan langile zela, eta fisikari gazte ezezaguna izanik, bere Erlatibitate Bereziaren Teoria argitaratu zuen.

56

Munduan bakerik egon dadin,
nazioetan bakea izan behar da.
Nazioetan bakea egon dadin,
hirietan bakea izan behar da.
Hirietan bakea egon dadin,
auzokideen artean bakea izan behar da.
Auzokideen artean bakea egon dadin,
etxean bakea izan behar da.
Etxean bakea egon dadin,
bihotzean bakea izan behar da.

Tao Te Ching XLIX kapitulua

«Tao» irakurtzen den txinatar karaktere batetik dator Taoismo hitza. Sarri «bide» modura interpretatzen da, baina esanahia haratago doa: «intuizioa, sentsibiltatea edo bizitzarekiko naturaltasuna» legez edo, modu abstraktuago batean, «zentzu» bezala uler daiteke. Lehenik, taoismoa filosofia bat da, bigarrenik, erlijio bat. Unibertsoaren indar-oreka modura ikusten du, non gizakiaren eta naturaren arteko barneko erlazioa nagusitzen den. Taoismoa, *Tao The Ching*, Lao Tzuren (K.a. VI) idatzietan oinarritutako sistema filosofikoa, abiapuntu hartuta garatu zen.

...barrutik hasten dena

57

Gure baitan bakearen bost etsai bizi dira: zikoizkeria, handinahia, bekaizkeria, haserre eta harrokeria. Kanporatzen baditugu, ezinbestean, betiereko bakea gozatuko dugu.

Petrarca

(1304-1374) Liriko eta humanista italiarra. Bere olerkiek Lope de Vega, Francisco de Quevedo, Luis de Gongora, William Shakespeare eta Edmun Spenser bezalako egileengan izan zuten eraginik.

58

Gizaki hauskorrok ongi handiena lortzeko gai gara, eta aldi berean, txarrena egiteko gai ere. Gutako bakoitzak norberaren buruarekin eguneroko borroka onartzean etorriko da aldaketa. Gehiago barkatzeko, errukiorragoak izateko, maitaleagoak, eta gehien bat tolerantziaren mirariren bati esker alda gaitezkeela, eta ingurukoak ere alda daitezkeela jakinik, zoriontsuagoak izateko egin behar dugun borroka.

Mairead Corrigan

(1944-) (Belfast) Betty Williamsekin batera Bakearen aldeko Jendearen Elkarte sortu zuen. Elkarte hauek Ipar Irlandako gatazkan irtenbide baketsuen bilaketan jardun zen. Biek 1976an Bakearen Nobel Saria jaso zuten.

59

Lan, maitasun eta pentsamendu sortzailea posible dira baldin eta behar denean pertsonak lasai eta bakardadean egoten badaki. Norberak bere burua entzun ahal izatea besteekin harremanetan jartzeko ezinbesteko baldintza da.

Erich Fromm

(1900-1980) Alemaniako psikologo sozial eta humanista garrantzitsua.

60

Eguneroko gure bizitzan barre egin badezakegu, baketsu eta zoriontsu izan bagaitezke, geuk ez ezik, gutako bakoitzari ere mesede egingo dio. Hori da bakearen aldeko lanaren ikasgai oinarrizkoena.

Thich Nhat Hahn

(1926-) Bakearen aldeko ekintzailea eta duela lau hamarkada da monje budista. Bakearen aldeko lanagatik Nobel Sari-rako izendatu zuten. 1972az gero Vietnamgo gerran hasi zuen borroka baketsuagatik errefuxiatuta dago Frantzian.

Bakea eta ekintza

61

Gure barrenean bakearen adeitasuna eta ulermena elikatzen dugu. Horrek gure inguruan haize gozo atsegina sentiarazten digu. Eta haize horrek, hostoen xuxurla antzera, zera esaten digu isilpean: Bakea ez dator begiratzetik, ez bada ekintzatik!

Pauline Tangiora

Aotearoako maoria (Zelanda Berria). Herri indigenen munduko kontseiluko lehen ordezkari emakumea da.

62

Bakea ez da gatazkarik eza, gatazka gainditzen laguntzen diguten alternatiba sortzaileen presentzia baino.

Dorothy Thompson

(1893-1961) Kazetari estatubatuarra. «The Times»en arabera (1938), AEBetan eragin handiena zuen emakumeetako bat zela esan zen. Nazien Alemaniatik kanporatu zuten lehen kazetaria izan zen.

63

Banutzen dituen amildegiak handitzen ditu indiferentziak. Karitateak eskuak zabaltzen ditu, eta horrela, konturatu gabe, mugimendu telurikoak legez, munduak batzen ditu.

Andrea Riccardi

Sant' Egidio komunitateko sortzailea eta presidentea.

64

Gure etorkizuneko arriskurik handiena apatia da.

Jane Goodall

Bere bizitza Afrikako txinpantzeen portaeraren azterketari eskaini dion naturalista eta primatologo ingelesa.

65

Infernuko lekurik beroenak krisi moral handiko garaietan euren neutraltasuna mantentzen duten horientzat gorderik daude.

Dante

(1265-1321) Olerkari florentziarra. Europan Erdi Aroan sortutako literatura unibertsaleko lanik gorenetakotzat jotzen da, *La divina comedia* bere maisu-lana.

Bakea eta etika

66

Indarkeriarik eza ez da gure nahien arabera jantzi eta erantzi daitekeen arropa. Bihotzean du oinarri, eta gure izatearen bereizi ezinezko zati izan behar du.

Mahatma Gandhi

(1869-1948) Indiako pentsalaria eta politikoa. Borroka metodo berriak jarri zituen abian, eta bere programetan borroka armatua alboratzea eta indarkeriarik eza aldarrikatzen zituen. Kontzientziaren esanekiko leialtasun osoa defendatzen zuen, baita beharrezko kasuetan horrek desobedientzia zibilera bultzatu behar bazuen ere. Hark eta Leo Tolstoyk gutunak idazten zizkioten elkarri. Azken horren indarkeriarik gabeko erresistentziaren kontzeptuan eragina izan zuen.

67

Egia da gerren beharra aldarrikatzen duten indarren eta bakearen eskubidea defendatzen duten indar moralen arteko ezberdintasun beldurgarria dagoela. Baina egia da, berdin-berdin, ezerk ezin duela gizakien borondatea garaitu, beste gizakien borondateak izan ezik.

José Saramago

(1922-) Idazle, kazetari eta dramaturgo portugaldarra. Literatura Nobel Saria 1998an.

68

Gosez edo hotzez hiltzen denarentzat gerra eza legez ulertzen den bakeak balio gutxi du. Ez dio kontzientzia-presoiari eginiko torturaren oinazea kenduko. Ez die babes emango ondoko herrian zuhaitz-mozketa kontrolik gabeak eragin dituen uholdeetan izaki maitatuak galdu dituztenei. Giza eskubideak errespetatzen diren lekuetan, jendea asetuta dagoen lekuetan eta gizakiak eta herrialdeak askeak diren lekuetan bakarrik iraun dezake bakeak.

Tenzin Gyatso

(1935-) Bost urterekin XIII. Dalai Lamaren haragitze izendatu zuten. Armada txinarrak Tibet inbaditu ostean, 15 urte zituela, 1950.eko azaroaren 17an atzerrian zegoen gobernuko buru izendatu zuten. 1989an Bakearen Nobel Saria jaso zuen, askatasuna lortzeko beretarren borrokan indarkeriaren aurka egindako lanagatik. Hala, mundu osoan Tibeteko gatazkaren eta bere herrialdeko egoeraren berri eman zuen. Bakearen aldeko Hamarkadarako Nazioarteko Koordinazioaren Ohorezko Batzordearen partaide da.

69

Borondate oneko gizon-emakumeekin mundu hobe baten alde lan egin dezakegu, gizakia- ren berezko kalitatea kanporatzen duten horiekin. Hori guztia eraginkortasunez egiteko, bizitzaren esperientziari esanahia ematen dioten balioak eskaintzen dituen etika globala behar du munduak. Institutu erlijiosoek eta dogmek baino gehiago, horiek sostengatzen dute gizadiaren dimentsio inmateriala. Maitasunak, errukiak, elkartasunak, ardurak eta tolerantziaren baloreek kulturaren, politikan, merkataritzan, erlijioan eta filosofian barneratu

behar den etika global horren oinarria izan behar dute. Nazio Batuen familia zabalak ere barneratu behar ditu.

Wangari Maathai

(1940-) Keniako ekintzaile politiko eta ekologista. 2004an Bakearen Nobel Saria jaso zuen «garapen jasangarriaren alde, demokraziaren alde eta bakearen alde eginiko lanagatik». Sari hori jasotzen duen lehen emakume afrikarra da.

Bakea eta justizia

70

Gizakien sufrimenduaren eta umilazioaren aurrean isilik ez egoteko hitza eman nuen. Beti norbaiten alde egin behar da. Neutraltasunak zapaltzaileari laguntzen dio, sekula ez biktimari. Isiltasunak oinazea sortzen duenari laguntzen dio, sekula ez oinazea jasaten duenari.

Elie Weisel

(1928-) Idazle errumaniarra, nazien kontzentrazio-eremu batetik onik atera zen, eta bizitza guztia holokaustoaren izugarrikeriak salatzeke eman zuen, halako basakeriarik berriro gerta ez zedin. 1986an Bakearen Nobel Saria.

71

Nola ez hitz egin gerrari, pobrezari eta ezberdintasunari buruz, baldin eta sufrimendu horiek jasaten dituztenek hitz egiteko ahotsik ez badute?

Isabel Allende

(1942-) Idazle eta dramaturgo txiletarra. Iberoamerikako nobelagile ezagunena da. 35 milioi ale baino gehiago saldu ditu, eta bere lana 27 hizkuntzataraz itzuli dute. Salvador Allenderen ahaide den Tomas Allende funtzionario diplomatikoaren alaba.

72

Bake-kulturaren edozein definizioak laguntza egituraturik eta errukiorrik gabe aurrera egiteko edo lehiatzeko bitartekaririk ez duten komunitateentzat eta gizabanakoentzat justizia erdiesteko arazoari egin behar dio aurre.

Mahnaz Afkhami

«Women's Learning Partnership»en sortzailea eta presidentea, eta «Foundation for Iranian Studies»en zuzendari exekutiboa eta Iraneko emakumeen arazoan ministra ohia. AEBetan erbesteratua, emakumeen eskubideen defendatzaile nabarmena izan da hiru hamarkadaz, eta horretarako emakumearen egoeraren aurrerapenaren alde diharduten nazioarteko gobernuz kanpoko zenbait erakunde sortu zituen eta horien zuzendaria eta presidentea izan.

73

Gizarte bat basatiago bihurtzen da zigorren eguneroko erabileraz delituen errepikapenez baino.

Oscar Wilde

(1854-1900) Idazle, olerkari eta dramaturgo irlandarra. Biktoriar garai berantiarreko Londoneko dramaturgorik nabarmenetakoa; bere argitasun nabarmenagatik eta zorrotzagatik ospetsua izan zen garai hartan.

74

Justiziazko eta maitasunezko mundu bat nahi badugu, adimena maitasunaren zerbitzura jarri behar da irmo.

Antoine de Saint-Exupery

(1900-1944) Idazle eta hegazkin pilotu frantziarra eta *Printze Txikia* lanaren egilea. Friburgoko unibertsitatean ikasi zuen.

Bakea eta maitasuna

75

Zure etsaiarekin bakea egin nahi baduzu, berarekin lan egin behar duzu. Orduan zure kide bilakatuko da.

Nelson Mandela

(1918-) Bozka unibertsalezko hautaz eta bide demokratikoz aukeratu zuten Hego Afrikako lehen presidentea. Presidente izendatu baino lehen apartheidaren aurkako ekintzaile garrantzitsua izan zen, eta 27 urtez kartzelan egon zen. 1993an Bakearen Nobel Saria.

76

Maitatzea, berez, ez dirudi mundu honetakoa denik, eta horrexegatik, bere bitxitasunagatik baino, apolitikoaz gain politikaren aurkakoa delako, agian, politikaren aurkako indarririk boteretsuena da.

Hannah Arendt

(1906-1975) Alemaniako teoriko politikoa. Bere lanetan boterearen naturari buruz dihardu, eta politika, autoritatea, totalitarismoa eta Shoah bezalako gaiak lantzen ditu, era berean. Inguratzen zuen gizarteari buruzko bere azterketa finak direla-eta garai guztietako pentsalaririk onenetarikotzat jo da.

77

Egiarekiko maitasuna dela bertute oinarria eta gezurretan oinarritzen diren bertuteak mina besterik ezin dutela eragin uste dut.

Bertrand Russell

(1872-1970) 1950an Literatura Nobel Saria. XX. mendeko matematikaririk eta filosofoirik garrantzitsuenetakoa izan da. Gai askori buruz idatzi zuen: matematikaren oinarritik eta erlatibitatearen teoriatik hasita ezkontzari, emakumeen eskubideei eta bakezaletasunari buruzko gaiak lantzeraino. 90 urte zituela 1962an Kubako misilen krisian bitartekari lanak egin zituen, eraso militarra ekiditeko asmoz. Gerra nuklearraren mehatxuari aurre egiteko, Albert Einsteinekin batera, Pugwasheko Konferentzien hazi izan zen manifestua idatzi zuen.

78

Giza bekatuen argitan bereziki, zenbait ideien aurrean geldirik eta txundituta bazaude, indarrez ala giza maitasunez, nola borrokatu jakin gabe. Beti zera aukeratu: «nik giza maitasunaren bidez borrokatuko dut». Behin betirako zure adimena horren gainean eraikitzen baduzu, mundu osoa konkista dezakezu. Maitasun umila ikaragarritzko indarra da; gauza guztien artean indartsuena da, eta ez dago hori bezalako ezer.

Fyodor Dostoyevsky - Karamazov Anaiak

(1821-1881) XIX. mendeko errusiar nobelista. Literatura errusiarreko egilerik handienetako bat da, eta batzuk existentzialismoaren aitzindaritzat jotzen dute. *Karamazov anaiak* lana literaturaren maisu-lan eta sekula idatzi den lanik handienetako bat bezala hartzen da.

79

Kontzientziaren aldaketan oinarritu zen heinean lortu zen bizitza hobetzea, hau da, indarkeria-
ren legea gizakien kontzientzian maitasunaren legeak ordezkatu zuen heinean.

Leo Tolstoy

(1828-1910) Bere herrialdean eragin handia izan zuen nobelista errusiarra. Fyodor Dostoyevskirekin batera, XIX. mendeko Errusiako literaturako izen handienetako bat izan zen. Bere lanik ospetsuenak *Bakea* eta *gerra* eta *Ana Karenina* dira.

80

Ezin dugu iragana aldatu, baina horrekiko dugun jarrera alda dezakegu. Erruduntasun-sentimenduak kanporatu eta barkamena landatu. Harrokeria errotik atera eta umiltasuna erein. Alda ezazu gorrotoa maitasunagatik, eta horrela orain eroso eta etorkizun itxaropentsua eraikiko ditugu.

Maya Angelou

(1928-) Olerkari estatubatuarra, saiakera-idazlea eta aktorea. Eskubide zibilen aldeko mugimenduan pertsona garrantzitsua.

Bakeak dakar bakea

Bakeak dakar bakea.
Bakea bake-bidea.
Bakeak dakar bakea.
Elkar ulertzetik dator
bakearen landarea:
begirunea du sustrai
onarpena du lorea.

Bitoriano Gandiaga